

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Eguena / 2002ko abenduaren 5a / 609. zenbakia



JOSTAILUEN GARRANTZIA

Gabonak datozela-eta, Txatxilipurdi elkartearekin izan gara jostailuen garrantziaren gainean berbetan. Jostailu erakusketa egin ohi du elkarte horrek.

KIROLA: IBAN GALÁN, EUSKADIKO TXAPELDUN/12 • KULTURA: JOKIN ZAITEGI ITZULPEN LEHIAKETA/14

ARGAZKIA: AITOR URIZAR

Kalitatea • Aukera zabala • Arreta pertsonala



*Zure ametsak geurean
errealitate bihurtuko dira*



iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

KALEINKESTA/ Umiei ze erregalau kontuen eukitten dozu?



ESKARNE GARITAONANDIA
Langillie



MIREN AXPE
Langillie



MILA AGIRRE
Langillie



ENRIQUE URIBARREN
Langillie



YAGO CASCIÓN
Ikaslie



JOSE MANUEL IGLESIAS
Langillie

Geure alabie nagusixe da, baiñe txikixe zanian harek eskaketan euen erregaletan gutzen. Beti be ez zan holaxe izeten, baiñe jeneralien, harek eskaketan euen, errexena zan-eta.

Jeneralien, jostailu didaktikuek topetan ahaleginetan naz, baiñe sekule be ez dot topetan gure dotena, eta askotan, umien gurasuei galdeketa dutziet ia ze biher dauen.

Kontuen hartzen dogu harek ze eskaketan dauen, baiñe geuk be pentsetan dogu jostaillu hori egokixe dan edo ez. Jostaillu belikorik, adibidez, sekule be ez dutzogu erregaletan.

Umiek eskaketan dauen dana erregalau ezkerro, ez geuke dirurik eukiko. Jostaillu didaktue topetan ahalegindu ezkerro, askotan, telebisiñuen agerketan dana erosten dozu.

Jostaillu egokixe elegiduten ahaleginduko nitzake, ez belikue, ezta sexistie be. Baiñe argi dago eurek telebisiñuen agerketan dana gure dauela. Komikixe, adibidez, erregalo politte da.

Txikixek zienien, jostailluek baiño gehixago, biher euen erregaletan gutzien, erropak-eta. Noix edo noix jostailluren bat edo beste erregalau izen dutzogu, baiñe jeneralien, erropak.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK 'U' ITXURAKO PLATAFORMA Aspaldi, tarte honetan berberan Santa Barbara parkeko U itxurako plataformaren egoera kaskarra salatu genuen. Orain dela gutxi, ordea, Udalak plataforma berria jarri du, eta bukatuta ote dagoen ez dakigun arren, txalagarria da horren ardura hartu izana. Ziur asko, gustura hartuko dute Arrasateko skate talde berriko partaideek eta herriko gaztetxoek.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7	ORAIN ETA HEMEN /8	KULTURA /14
Eguzki plaka gehiago	Merkaderri elkarrizketa	Akordeoi Lehiaketa
Eguzki plaka gehiago jarri behar dituzte herriko hiru eskolatan, EEE-ren laguntzarekin.	Arrasaten bizi den Jabier Merkaderrek Kutzako Ekintzaileen saria jaso du. Elkarrizketa egin diogu.	Dagoeneko abian dago Nazioarteko X. Akordeoi Lehiaketa, baita Gipuzkoako Lehiaketa ere.

ASTEKO DATUA

300

GAZTE ARITUKO DIRA GIPUZKOAKO LEHIAKETAN

Hirurehun gaztetxok parte hartuko dute Gipuzkoako 23. Akordeoi Lehiaketa. Horrez gain, Nazioarteko X. Akordeoi Lehiaketa eta Gipuzkoako XV. Jaialdia ere Arrasaten jokatu dira.

BESTEKE SANA

“Gure eskoletan beti landu da aniztasuna, eta azken urte hauetan beste aniztasun mota bat daukagu: kultura artekotasuneko aniztasuna. Kanpoko ikasle asko etortzen ari dira, eta horrek ere beste ezaugarri bat ematen dio. (...) Mintegiaren balorazio baikorra egin dugu: batetik, parte hartzaileen kopuruarengatik. Helburua gure ikastetxeetako irakasleek parte hartzea zen. Baina, kanpotik ere beste asko etorri dira. Matrikulatutakoak 320 izan dira eta gonbidatuak ere egon dira. Guztira, 350 lagun ibili gara asteburuan Oñatiko mintegian. (...) Halako ekimenen bitartez, ikastetxeen arteko elkarlana bultzatzen dihardugu. Gure ideien hausnarketa egin eta besteekin konparatu dezakegu”

JULIA MONGE
ARRASATE IRRATIA/02-12-02

HERRITARREN BERBAK/ Eneko Barberena



Agur

Iritsi zait agur esateko ordua. Ez dakit alferkeriagatik, gogo larregi ez daukadalako edo, agian, beste arrazoi batengatik izango den, baina uste dut idatzi dudala nahikoa jada *Herritarren berbak* izeneko txoko honetan. Denok dugu zerbait esateko mundu honetan, eta beste herritar batzuei ere lekua utzi behar zaiela uste dut. Azken hitza esan aurretik, ordea, eskerrak eman nahi nizkiok ARRASATE PRESSi eta bereziki bertako zuzendari Iker Barandiarani. Eskerrak ematea hemezortzi urte eskasekin bertan idazteko aukera emateagatik eta nire lana errespetatzeagatik bere hartan.

Askotan galdetu diot nire buruari ea zergatik idazten dudan, ea zerk bultzatzen nauen horretarako luma hartzera. Ez da ospea, ez da dirua... Ekaingo koban animaliak pintatzen zituztenen arrazoi antzekoengatik idatziko dut, agian, komunikatzeko,

bestetik gabe.

Horregatik da garrantzitsua jendeak idatz dezala, abestu dezala, grafitiak egin ditzala... Komunikatzea, azken finean, individualismoak eta egoismoak horrenbeste leku duen gizarte moderno honetan. Gorrotoa, maitasuna, amorrua... nolabait azaleratu behar direlako. Azkenik, eta, nola ez, nire estiloari fidel, abesti baten letra sartu nahiko nuke. Anestesiaren *Erantzun* kantaren zati bat, ez guztia:

“Sinisten al duzu pakean eta justizian?

bizi zarela esaten dizutenean? Makinaren zati bat sentitzen ez zarenean... Erantzun, ikusi eta ez ahaztu. Zure ezadostasuna bideratzeko behar dituzun tresnak bila itzazu, beldurrak ez dezala zure ahotsa ixildu...

Erantzun, ikusi eta ez ahaztu. Ez pentsa ezin duzula inoiz ezer egin, zuk badakizu batzuk daudela zurekin, barneko amorrua denona da berdin, indar guztiak batuz erantzun elkarrekin.(...)”

“Denok dugu zerbait esateko mundu honetan, eta beste herritar batzuei ere lekua utzi behar zaiela uste dut”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berebizar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUENA, 5**
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 6**
Corcuera. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ZAPATUA, 7**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- DOMEKA, 8**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 9**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- MARTITZENA, 10**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 11**
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelheenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**
Astelheenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

BEDOÑAKO JAIAK
Egubakoitzetik domekara arte, Bedoñako auzotarrek Santa Eulalia jaiak ospatu-ko dituzte. Besteak beste, dantzaldia, txalaparta erakustaldia eta Doke Txapelketa izango dira.

AKORDEOI LEHIAKETAK
Etzi, zapatua, Nazioarteko X. Akordeoi Lehiaketako azken fasea jokatu da, Amaia Udal Antzokian, goizez eta arratsaldez. Domekan, lehiaketen azken ekitaldia eta sari banaketa, Amaian, 11:30ean.

TRONBOI, TUBA, BONBARDINOA
Abenduaren 10ean, martitzenean, tronboi, tuba eta bonbardino kontzertua emango dute, Arrasate Musikaleko Musika Lantegian 19:00etan.

'LOS GAVILANES' ZARZUELA
Abenduaren 13an, 14an eta 15ean, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *Los Gavilanes* zarzuela eskainiko du. Amaia Udal Antzokian egingo dute, 19:30ean.

LANDAREAK ZELAN BABESTU
Abenduaren 12an, eguenean, landareak babesteko berbaldia, Uribarriko erretiratuen elkarte, 17:00etan. Uribarriko baserri-azoko alkatetzaren eta Ekinen eskutik.

AEDrenAGENDA

BERTSOZALEAK
Orain dela hiru aste bertsoafarian izan ziren lagun batzuek erabaki dute egubakoitz iluntzetan AEDko txokoan batzea. Zeuk ere parte hartu!

ZAHARBERRIKO IZENEMATEA
Zaharberri euskaldun zaharren eta euskaldun berrien premia dute.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Senideen manifestazio jendetsua Arrasaten

Salto del Negroko kartzelan zeuden euskal presoek gose-greba zela-eta, mila lagunek baino gehiagok parte hartu zuten Arrasaten, domeka arratsalde baten, egindako manifestazioan. Gainerako euskal presoek gose-greba bukatu arte Senideek egunero karteladak iragarri zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Morroskillua"




Borroia, garabatoa. — *Asierrek kuaderno dana morroskilloz beteta dauka.*

ARRASATEIRRATIA FM107.7



Astelehenetan, dietistaren bisita

Datorren astelehenean elikaduraren gainean berba egitera etorriko da Amaia Diaz de Monasterioguren. Amaia dietista da, eta hamabostean behin Arrasate Irratian izaten da, elikaduraren gainean berba egiten. Era guztietako gaiak landu ditugu orain arte, baina oraindik badago zer kontatu. Astelehenean, 10:00etan, beste hitzordu bat duzue. Hari zerbait galdetu gura badiozue, irratia@goiena.com-era idatzi edo, bestela, 943 71 17 31 telefonora deitu.



Goikobaluren kontzertua irratian

Joan den azaroaren 15ean Goikobaluk Amaia Udal Antzokian eman zuen kontzertua eskainiko dugu Arrasate Irratian. Goikobalu Abesbatzak Arrasate Musikaleko perkusio taldeak babestuta eman zuen kontzertua, eta euskal folkloreko piezez gain, film ezagunetako kantuak ere abestu zituzten. Abenduaren 6an, 11:00etan, eskainiko dugu kontzertua irratian. Jaieguna izan arren, hortaz, izango da zer entzun Arrasate Irratian.

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 29	4 °C
MAXIMOA Eguena, 28	17 °C
ASTEKO EURIA (l/m ²)	122 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 27	17 °C	5 °C	- l/m ²
Eguena, 28	17 °C	12 °C	4,2 l/m ²
Egubakoitza, 29	12 °C	4 °C	4,4 l/m ²
Zapatua, 30	12 °C	7 °C	22,6 l/m ²
Domeka, 1	12 °C	8 °C	46,3 l/m ²
Astelehena, 2	9 °C	8 °C	46,5 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak...
- 12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra
- ASTELEHENA**
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras. Estilo desberdineko musika.
- MARTITZENA**
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria. Albiste bitxiak eta musika.
- EGUBAKOITZA**
11:00 Goikobaluren kontzertua
- ZAPATUA**
11:00 Asteko elkarrizketak
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Osoko bilkuran aparkalekua eztabaidagai

Eguen arratsaldean izandako osoko bilkuran gai zerrendako gai guztiak onartu zituzten, bat izan ezik. Guztira, hogeitaz gaituzten lantzeko, baina Garibai eta Laubideko aparkalekuaren gaia batzordera itzultzea erabaki zuen udalbatzarra.

Alderdi sozialistako ordezkari Paco Garciak aurkeztutako emendakin gehigarri batek sortu zuen eztabaida. Sozialistak proposatu zuen aparkalekuko lanpostuak behar handien dutenei ematea. Alkateak, berriz, proposatu zuen tribunalaren esku uztea lanposturako gizatalde horietako hautagaiei puntuazio gehigarri bat jartzea.

Kontzertu didaktikoa Arizmendin

Arizmendi Ikastolako San Viator Txikiko gunean kontzertu didaktikoa izan zuten egubakoitzean. Xabier Lizaso musikaria izan zuten gidari, eta ordubetez hainbat ariketa egin zituzten, musika klasikoa hobeto ezagutzeko helburuarekin.

Esan bezala, kontzertuan hainbat ariketa egin zituzten; horietako bat: Beethovenen *Claro de luna* entzun eta gero, umek doinu horiek entzun bitartean sentitzen zutena azaldu zuten. Helburu nagusia musika klasikoa umeengana eramatea izan zen.

Kukubiltxo Arrasaten

Zapatu arratsaldean, Kukubiltxo taldeak *Ekidazu, lehoiek ez dakite bibolina jotzen* antzerki lana eskaini zuten. Ikuskizuna Amaia Udal Antzokian izan zen, eta jende asko hurreratu zen ikuskizunera. Amaian izan zirenek musikaz eta kantuz jositako emanaldiaz gozatu zuten.

Kukubiltxo taldearen azken lana da *Ekidazu*. Mikel Zaratek idatzitako gidoian oinarrituta dago antzezlan, eta injustizia eta solidaritatea ditu ardatz.



ZAPATUAN, NAFARREN EGUNA OSPATU ZUTEN

Joan den zapatuan, nafarren eguna ospatu zuten Arrasaten. Eguna mezarekin hasi zuten. Mezaren ondoren, ohiturari jarraituz, erretiratuen egoitzara joan ziren bisitaldia egitera. Arratsaldeko ordu batean, berriz, piper eta ardo dastatzea izan zen, eta guztia ezin gozoagoa zegoen.



USTEAKUSTE / Iker Barandiaran

Gerra zibilak kaltetutakoak

Tristea eta gogorra bada ere, oraindik Euskal Herrian, baita Espainiako Estatu osoan ere, Gerra Zibila delakoaren, edo, hobe esanda, 1936ko altxamenduren zauriak ez daude itxita. Orduetik gaur egunera arte alor askotako botere postuetan zeintzuk dauden ikusi besterik ez dago: horien semeak edo... Horrez gain, egungo agintari askori


Francoren altxamendua gaitzestea eta hark ekarri zituen guztiak salatzea kostatu egiten zaio.

Dena dela, eta, batez ere, iraganari erreparatzen badiogu, batzuen ekimenari esker, pauso txiki batzuk ematen hasi dira. Horra hor, aurreko batzuen aipatu genuena: frankismoaren sasoian hildakoen gorpuak aurkitzeko eratutako taldea-

ren lana, esaterako.

Horren harira, duela gutxi, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Sailak ekimen berri bat bultzatu du, agian, larregi entzun ez dena. Gerra Zibilaren sasoian sei hilabete gora espetxean edo lan bortxatuen esparruan egon zutenek edo bestela euren senitartekoei dirulaguntza jasotzeko aukera dute sei hilabete epean. Horretarako agiri mordoa aurkeztu behar dituzte, baina tira, merezi du saiatzea.

ASTEKO IRUDIA



AITOR URIZAR

EURIA BARRA-BARRA ETA IBAIEK ETA ERREKEK GAINEZKA EGITEKO PUNTUAN

Joan den asteburua ezker, egun eta gau, euria barra-barra ari du, eta Andaluzian ez bagaude ere, dagoeneko hemengo ibaiak eta errekek erdi gainezka daude. Testu hau idatzi genuenerako, San Juan de Dios ospitalearen alboan uholde txikiak izan ziren eta udalerriko hainbat puntutan Aramaio erreka

eta Deba ibaia erdi gainezka zeuden. Eguraldiaz kexatzeko ohitura daukagu: eguzkia gogor irteten bada, bero larregi egiten duelako, eta egunetan euria edo hotza egiten badu, horrexegatik. Ezbeharririk gertatzen ez den bitartean, negua gurera heldu dela kontzientziatzeko unea heldu zaigu. //B.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarako hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

GIZARTEA/ Umeari erosten zaizkion oparien eraginaren garrantzia

Gabonak, umeak, opariak, jostailuak, eta horren guztiaren garrantzia

UBANE MADERA

la iritsi dira Gabonak. Eta haiekin, opariak erosteko beharra, bereziki, tartean umeak badira. Batzuek denbora dezente ematen dute opari egokiena pentsatzen; beste batzuek umeak eskatutakoa erosten dute. Eta askok, telebistak esandakoa.

Egia esatearren, axola dio horrenbeste burukomin izatea? Edo kontua da oparia erostea, eta kito?

Hori uste dute guraso eta senide askok. Oparia erostearekin nahikoa dela. Edozelan ere, hori ez dela horrela esan digute guri.

Zalantzak argitzeko, gai horrekin esperientzia luzea duen elkartera jo dugu: Txatxilipurdia. Jostailu erakusketa ibiltaria du Arrasateko elkarte horrek, eta urte dezente daramatza herriz herri jostailuen gainean berbetan eta aholkuak ematen. Hala kontatu digu Jaione Berasainek, ekimen horren arduradunetako batek.

HIRU EKINTZA

"Hiru ekintza egiten ditugu: jostailuen erakusketa, lantegiak eta hitzaldiak". Jostailuen erakusketa hainbat gunetan banatu dute: adinka, euskarazko materialaren arabera, eta jostailu sinbolikoak. Eta gunen bakoitzean ere sailkatuta daude jostailuak; adibidez, motaren arabera: eraikuntza jolasak, trebetasuna lantzen dutenak, sinbolikoak... "Horrez gainera, informazio orriak ere baditugu, jostailuaren ezaugarriak azaltzeko".

JOSTAILU MOTAK

Txatxilipurdik ez ditu telebistan agertzen diren jostailuak erakusten: "Horrelakoren bat badago, baina horietatik kanpo beste batzuk erakusten ahalegintzen gara; adibidez, jostailu kooperatiboak. Mahai-jolasak dira, arau jakinekin eta taldean jolastekoak (*Monopoly*...). Erakusten ditugunak antzerakoak dira, baina, batak besteari irabazi beharrean, jokalariek elkarri lagundu behar diote eta denen artean jokoari irabazi behar diote, edo jokoak planteatzen duen erronka gainditu behar dute".

LANTEGIAK

Umeendako lantegiak ere antolatzen ditu Txatxilipurdik; esaterako, publizitatea lantzen dute: "Telebistaren tranpa guztiei aurre egin gura diegu. Umeei azaltzen diegu kontuz ibili behar dugula telebistan zer ikusten dugun. Umeak ikusten badu pampinak edo dena delakoak sekulako dekoratua duela, argi izan behar du etxean ez dela gauza bera izango".

Birziklatzea ere lantzen dute: "Erakusten diegu jostailurik garestiena ez duela zertan onena izan; eta zelan etxeko gauzekin jostailu



Txatxilipurdik Etxabarrin (Bizkaia) egindako jostailuen erakusketaren argazkia; jostailuak ezaugarrien arabera sailkatuta daude.

"Era berean, umeei erakusten diegu jostailu garestiena ez duela zertan onena izan"

mordoa egin daitekeen".

HELDUENDAKO HITZALDIA

Horrekin batera, helduendako hitzaldia ere egiten dute: *Nola egin jostailu egokia aukeratzeko?* du izenburua, eta jolasak duen garran-

"Publizitateak umeak engainatzen ditu; eta ez dakite benetan jostailua zelakoa den"

tzia, jostailu bat aukeratzeko kontuan hartu beharrekoak, publizitatea..., lantzen dituzte.

ARAZO NAGUSIAK

Azken horren gainean, adibidez, zera diosku Jaionek: "Publizita-

"Bideojokoan edukia, askotan, biolentoa, sexista edo konpetitiboa izaten da"

teak sekulako eragina du. Iragarki mordoarekin *bonbardatzen* dituzte umeak. Azkenean, ume txikiak ez daki benetan jostailu hori zelakoa den. Publizitateak biziki engainatzen ditu: benetako irudiak marrazki bizidune-

kin tartekatzen dituzte, edo musika erakargarria ipintzen diote... Horren ondorioz, umeak dena gura du, eta gurasoek ez dakite mugarik ipintzen. Askok ez diote denborarik eskaintzen zer erosi pentsatzeari; adibidez, jantziaren bat erostera goazenean, dena askotara joaten gara, jantzi mota bat baino gehiago ikusten ditugu... Jostailuak erosteko ez dago ohitura hori. Guraso askok umeak eskatu duena erosten dute.

BIDEOJOKOAK

Eta, umeek eskatzen duten oparien artean, bideojokoak dira nagusi. Zer gertatzen da horiekin? "Adin jakin batetik aurrera (gero eta gazteagoak, gainera: 7-8 urtetik aurrera) utzi egiten diote jostailuak eskatzeari, eta jantziak (kirol arropa, bereziki), kirolarekin lotutako gauzak edo bideojokoak eskatzen hasten dira. Eta, joko horiek zergatik dute horrenbesteko arrakasta? Bada, oso ondo eginda daudelako. Irudiak oso onak dira, gero eta hobek... Eta joko horietan, gainera, umeek irabazi egiten digute guri, helduoi, eta askogatik, gainera. Beste alde batetik, pantaila batetik bestera pasatzean puntuak ematen dizkiete... Denbora guzian txalotu egiten dute umea. Horrek guztiak asko erakartzen ditu.

Edozelan ere, arriskuak ere badituzte mota horietako jokoek: "Alde batetik, denbora. Beste guztiari bezala, ezin zaio horri denbora luzeegirik eman, beste gauza mordoa dago egiteko; eta, beste alde batetik, jokoan edukia. Askotan, oso biolentoa, oso sexista edo oso konpetitiboa izaten da; dena dela, badira beste joko batzuk interesgarriak direnak. Hortaz, guk gurasoek ematen diegun gomendioa da arrisku bi horiek zain ditzatela. Bada, umeak eskatzen badigu joko jakinen bat, dendara joan eta jokoak zeren gainekoa den jakin barik erosi beharrean, erakusteko eska dezakegu, eta horrela ikus dezakegu zein irudi mota erabiltzen duen, zein den joko horren helburua, helburu hori lortzeko zer egin behar den... Eta horrela, norberak balora dezake. Umeari transmititu gura dizkioten balioen arabera erabakiko dute gurasoek joko hori egokia den edo ez.

Beste arrisku bat ere badute: joko indibidualak direla. Umeak arratsalde baten hiru ordu ematen baditu *PlayStation*-ekin jolasten, hura bakarrik, larregi da".

Edozelan ere, Jaionek gaineratu digu batzuetan beharrezkoa dela horrelakoak erostea: "Umearen lagun guztiak baldin badute, hura kanpoan uztea ere ez da gauza". Kasu horretan, horrelakoren bat erostekotan umearekin negoziatzeko esaten dute, kritikotasunarekin jokatzeko.

Zer erosi jakiteko gomendio batzuk

Hona hemen Jaionek emandako aholku batzuk: "Inportantea da jostailu pasiboa ez izatea: jostailuak egiten du dena, eta umea hari begira bakarrik egoten da. Horrek ez dio ekarpenik egiten umeari. Jostailu batek umearen gaitasunak lantzeko ahalmena izan behar du: irudimena, motrizitatea... Eta lagunekin jolasteko bada, hobeto, lagun artean jolasten gehiago ikasten da-eta. Egokiak izaten dira, era berean, adinaren arabera erabiltzeko balio duten jostailuak. Eta azpimarratu beharko genuke jostailuak

ez duela sexurik. Jostailuari sexua publizitateak eta gizarteak ipintzen dio. Mutil bat nagusi egiten denean, akaso, aita izango da; hortaz, orain pampina batekin jolasten ari den bitartean, afektibitatea landuko du, eta gerorako balio izango zaizkion gauza pila landuko ditu. Neska baten kasuan ere gauza bera: akaso gidaria izango da; hortaz, kamioi batekin jolastea ondo etorriko zaio neskari. Azken baten, inportanteena umea bera da, baina bere gaitasun eta ahalmen guztiekin; horiek garatu behar dira".


INGURUMENA / Eguzki energia hartzeko plakak ipiniko dituzte

Eguzki energia plaka gehiago ipiniko dituzte Arrasaten

UBANE MADERA

Arrasateko osoko bilkurak onartutakoaren arabera, eguzki energia xurgatzeko plaka gehiago ipiniko dituzte herrian. Oraingoan, Erguin Herri Eskolan, San Frantzisko Xabier Ikastolan eta Udalako Ingurugiro Eskolan ipiniko dituzte eguzki plakak.

Energia berriztagarri eta garbiak sustatzeko asmoaren barruan, Arrasateko Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) hitzarmena sinatuko dute Arrasaten hiru eguzki plaka gehiago ipintzeko. Hitzarmenaren arabera, Erguin Herri Eskolan, San Frantzisko Xabier Ikastolan eta Udalako Ingurugiro Eskolan ipiniko dituzte 5 kW-ko potentzia duen eguzki plakak. Guztira, eskola bakoitzean 45-50 m² erabiliko dituzte horretarako. Otsailean hasiko dira eguzki plakak ipintzen, eta azaroa baino lehen bukatuta egongo direla uste dute.



Arrasaten, gaur egun, Musakolako kiroldegian daude eguzki plakak.

AMORTIZATZEKO MODUKOA

La 25.000 euro inbertitu beharko dituzte eguzki plaka bakoitza ipintzeko. Gero, horren bitartez lortuko duen energia Iberdrolari salduko dio Arrasateko Udalak. Hain zuzen ere, Udaleko Ingurumen batzordeko teknikari Rafa Ugartek adierazi digunez, eguzki plakak instalatzea garestia da, baina eguzkiaren bitartez lortutako energia saltzen, 15 urtean amortizatuko dute guztia; izan ere, urtero 2.000-2.400 euro arteko irabaziaz lortzea espero du Arrasateko Udalak.

Eguzki plakek 20-25 urterako biziraupena izango dute.

ETORKIZUNEAN, GEHIAGO

Arrasaten lehendik ere ipini izan dituzte eguzki plakak, Musakolako kiroldegian, hain zuzen ere. Eta Rafa Ugartek gaineratu digunez, aurrera begira horrelako gehiago ipiniko dituzte; horretarako baldintzak orain arte modukoak badi-ra, behintzat. Haren esanetan, "apurka-apurka jarri beharrekoak dira; geroz eta gehiago ipini beharko genituzke.

INSTITUTUAN

Horren harira, joan den astean Eusko Jaurlaritzak plazaratutako informazioaren arabera, urtea bukatu baino lehen, Euskal Herriko 50 ikastetxetan eguzki plakak ipiniko dituzte. Eta, datozen hiru urteotan, guztira, 170 ikastetxetan ipiniko dituzte. Horien artean, Arrasate-Aretxabaleta Institutua ere kontuan hartu dute.

Bestalde, ingurura begiratzen badugu, Legazpin ere ipintzen ari dira eguzki energia hartzeko sistemak.



Zubia ipintzen hasi dira, baina berandu

Hasi dira Gernika oinezkoen zumardiko zubia ipintzen, Zarugalde eta Erguin kaleen artekoa, hain zuzen ere. Baina egun bat atzeratuta hasi dira lan horiek egiten. Izan ere, abenduaren 3an eta 4an ziren ipintzeko, eta abenduaren 4an eta 5ean aritu dira ipintzen. Eta abenduaren 17an (martitzena) bukatuko dute zubia ipintzen.

Kontuan hartu beharra dago lanok egin artean errepidearen errei bat itxita egongo dela eta zubia bera ipintzen ari direnean, errepidea zeharo moztuko dutela. Hortaz, datorren abenduaren 17an, adi ibili, Kanpanzarko bidea erabat itxiko dute-eta, goizeko zortzietatik iluntzeko zortziak arte.



Iaz, Ehune dendak irabazi zuen lehenengo saria.

Erakusleihen Lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

UBANE MADERA

Dagoeneko Gabon jaietako ohitura bihurtu zaigu herriko denden Erakusleihen Lehiaketa. Aurtengoa ere gertu du Udalak, eta parte hartu gura duenak abenduaren 18a baino lehen eman beharko du izena.

Dendako erakusleihoa txukuntxukun ipini eta Santamasetako Erakusleihen Lehiaketan parte hartu gura duen dendariak abenduaren 18ra arte izango du izena emateko. Udaleko Kultura batzordean eman beharko du izena. Eta gero, abenduaren 20tik urtarrilaren 2ra bitartean, erakusleihok apainduta egon beharko du.

IRUDIMENA ETA ITXURA

Erakusleihoa baloratzeko orduan, Arrasateko Udalak elementu

hauek hartuko ditu kontuan: irudimena, orijinaltasuna, mezu publizitarioaren baliagarritasuna, erakusleihoren itxuraren kalitatea eta Santamas eta Gabon giroarekin duen zerikusia. Horrez gainera, dendaren ohiko produktuak azaldu beharko dira.

Epaimahaiaren lana errazteko, Arrasateko Udalak eskatu du erakusleihok argiztatuta egotea lanegunetan, dendaren itxeko ordura arte, eta jaiegunetan eta jaiegun bezperetan, 21:00ak arte.

SARIAK

Betiko moduan, hiru sari banatuko dituzte: lehenengo saria plaka bat eta 180 euro izango da; bigarrena, 150 euro; eta hirugarrena, Ibai-Arte merkataria elkarteak emango dituen 120 euro.

Sari banaketa abenduaren 20an egingo dute, 18:00etan.

Presoen aldeko sentsibilizazio kanpaina egingo dute

UBANE MADERA

Datorren abenduaren 14an eta 15ean, besteak beste, Arrasateko preso sozialetan eta politikoen aldeko sentsibilizazio kanpaina izango da. Esaterako, preso horien beharrak asetzeko materiala batuko dute.

Arrasateko artzapez-barrutiko Espetxe Pastoralak antolatuta, preso politikoen eta sozialetan aldeko jardunaldiak izango dira datorren asteburuan (abenduak 14 eta 15). Gabon jaiak datozela-eta, presoek gizartearen laguntasuna behar dutelako antolatu ditu Espetxe Pastoralak jardunaldiak. Oro har, presoek dituzten arazoekiko kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpaina izango da. Arrasateko artzapez-barrutian egingo dute material bilketa, eta gero, batu-

takoa Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako presoendako izango da.

BEHARRAK

Espetxe Pastoralak, presoen beharrak kontuan hartuta, egokienak diren produktuen zerrenda egin du. Horren arabera, besteak beste, presoek laguntza eman gura dienak honako produktuak eraman beharko ditu: dirua, barruko arropa berria (emakumeendako zein gizonendako), galtzerdiak, telefono txartelak, tabako gorria eta metxeroak, hortzetako pasta eta hortz eskuilak, kartazalak eta zigiluak, bainurako gela, desodorantea, oihalezko muki-zapiak eta ezpain zapiak, pilak eta turroi biguna.

Gero, batutako guztia presoek edo presoen senitartekoei emango diete.

Asteburuan, bedoñarrek auzoko jaiak ospatuko dituzte: Santa Eulalia jaiak

UBANE MADERA

Egubakoitzean hasi eta domekara arte jaietan murgilduko dira Bedoñako auzotarrak. Besteak beste, **Doke Txapelketa**, txalaparta erakustaldia eta, gauean, dantzaldia izango dira Bedoñan. Dena dela, eguraldiak zeresan handia izango du egingo diren ekitaldietan.

Bihar, egubakoitza, 16:30ean hasiko dira Bedoñako jaiak etxafuegoekin eta buruhandiekin; 17:00etan, berriz, **Doke Txapelketa** izango da; 18:00etan, Patata-tortilla Lehiaketa auzokideendako; eta 19:00etan, lurcha, Lora-mendi elkartean.

ZAPATUA ETA DOMEKA

Zapatuan ere etxafuegoekin eta

buruhandiekin hasiko dute eguna, 10:00etan; ordu erdi geroago, umeen txanda izango da, Txatxilipurdikoen eskutik; eta eguerdian, Bertsoz taldeak panpinen antzerkia antzeztuko du.

Arratsaldean, 15:00etan, euskal jokoak egingo dituzte Kulki-ekin; 17:00etan, txokolate-jana izango dute; eta 18:00etan, mus eta briska txapelketak; 21:00etan, berriz, auzotarrek afaria egingo dute Erraztiko jatetxean. Eusebio Lasarte bertsolariak eta txiste kontalariak saioa egingo du afaldu bitartean. Eta, afalostean, Kuluxka taldearen dantzaldia izango dute.

Azken egunean ere etxafuego eta buruhandiak izango dira goizean, 11:30ean; txalaparta erakustaldia, 12:00etan; eta bukatzeko, 13:00etan, meza nagusia.



ELKARRIZKETA

JABIER MERCADER/KUTXAKO EKINTZAILEEN SARIEN IRABAZLEETAKO BAT

“Hilabetekaria da ‘Ceramikarte.com’, eta egunero berritzen den atal bat du.”

UBANE MADERA

Kutxak antolatutako Ekintzaileen lehiaketan Jabier Mercader gasteiztarrak saria jaso du bere aldizkari digitalarengatik. Arrasaten bizi da orain dela sei urte, eta beraz, hemen jaio da aldizkari digitala.


Gasteiztarra zara eta Arrasaten egiten duzu lan...

Eta Arrasaten bizi naiz orain dela sei urte. Saiolanen proiektua garatzen ari naiz. Baina ni izatez zeramista naiz; Gasteizen lantegia daukat, eta orain dela bi urte-edo, itxi egin nuen, aldizkarian lanean aritzeko. Bestetik, zeramikako irakasle naiz Gasteizen. Dena dela, aurtan eszedentzia hartu dut aldizkarian lan egiteko.

Aldizkari bat egin duzu, ezta?

Bai, kioskoetan saltzen den aldizkari espezialdu horietako modukoa, baina gaur egungo zeramikaren eta buzingintzaren gainekoa; bereziki, zeramikaren alde artistikoa lantzen dugu.

Aldizkari arruntekiko desberdintasuna euskarria da. Guk euskarri digitalean egiten dugu lan, ez da paperezko bertsiarik existitzen. Zergatik? Bada, begira, hil honetan 4.000 bisitari izan ditugu munduko 38 herrialdeetatik. Espainiako Estatutik izan ditugu bisitari gehien, baina AEBetan, Argentinan, Mexikon eta Italian ere irakurtzen gaituzte. Eta hori



UBANE MADERA

ezinezkoa izango litzateke paperezko edizioa eginez gero. Gainera, horrela, papera ere aurreratzen dugu, eta, jakina, askoz ere merkeagoa da.

Zenbatean behin irteten da?

Ceramikarte.com hilabetekaria da, eta badu egunero berritzen den atal bat ere: *Zeramistaren kazeta*. Albisteak iritsi ahala publikatzen dira.

Zein hizkuntza erabiltzen duzue?

Saiolanera etorri nintzeneko asmoa zen euskal zeramistendako aldizkaria egitea. Hala ere, berehala konturatu ginen hemen ez dagoela horrenbeste bezero; hortaz, Estatura zabaldu genuen. Eta hizkuntza nagusia gaztelania da; baina, adibidez, Galiziaren gaineko albisterei bat egiten badugu, gaztelaniaz eta galizieraz publikatzen ahalegintzen gara. Aragoz ere publikatu ditugu artikulak... Ahal dugun neurrian.



AUTOR URZAR

Lur azpian aparkalekuak egingo dituzte Garibain.

Lur azpiko aparkalekuak egiteko proiektua

UBANE MADERA

Joan den asteko osoko bilkuran landutako gaien artean, Garibaiko lur azpiko aparkalekuena ere bazegoen. Hain zuzen, lanen adjudikazioa lantzeko ziren. Baina eztabaida piztu zen zinegotzien artean.

Horren ondorioz, gai hori mahai gainean utzi zuten, beste batzar baten lantzeko.

Edozelan ere, eta proiektua egin barik egon arren, Arrasateko Udalak badu aparkaleku horien gutxi gorabeherako nondik norakoa.

Horrela, bada, Garibai etorbidearen eta gaur egun barrakak ipintzen dituzten gunearen artean eraikiko dituzte aparkaleku

horiek. Lur azpikoak izango dira, eta edozeinek erabili ahal izango ditu. Aparkalekuekin batera, aipatutako gunearen goiko aldea ere urbanizatuko dute.

Dena dela, esan bezala, joan den astean zinegotziak ez ziren ados ipini gai horren gainean, eta oraindik ez dute adjudikaziorik egin. Proiektua ere idatzi barik dago; hortaz, oraindik ez dago lanak hasteko eperik.

GALIZIA KALEAN ERE BAI

Horrez gain, Arrasateko Udalak adjudikatu egin ditu Galizia kalean aparkalekuak egiteko lanak. Hain zuzen ere, Construcciones Canas Esteban SL izeneko enpresak egin du eskaintzarik egokiena, Udalaren iritziz. Orain, bi hilabete dituzte lanok egiteko.



ARRASATE PRESS

Berrogei bat margolan izango dira salgai eta ikusgai Harreman-en azokan.

GIZARTEA/ Harreman GKEK Gabonetako azoka ireki du

Zabalik dago Hirugarren Munduari laguntzeko azoka

IBANE MADERA

Gaur ireki dute Harreman gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako duen azoka. Abenduaren 24ra arte egongo da zabalik. Batzen duten dirua Guatican (Kolonbia) inbertitzeko izango da, San Clemente proiektuan aurrera egiteko. Harresi aretoan dago azoka.

Arrasateko margolariek eta ibarreko beste margolari batzuek emandako margolanekin azoka antolatutako du Harreman gobernuz kanpoko erakundeak. Berrogei bat lan batu ditu Harreman-ek, eta abenduko azokan ipiniko ditu salgai, dirua batzeko.

Hain zuzen ere, gaur inauguratu dute azoka hori. Aurten, Harresi aretoan ipini dute azoka; izan ere, orain arte, Seber Altubeko lokalean egin dute, baina

han lanak egiten ari direla-eta, aurten, lekuz aldatu dute azoka. Besteak beste, azoka inauguratzeko, 20:00etan, Goikobalu abesbatzak kontzertua eskaini du, San Juan parrokiaren, eta gero, lancha eman dute Harresi aretoan bertan.

EGUNERO ZABALIK

Gaur hasi eta abenduaren 24ra arte izango da azoka. Egunerogunero egongo da zabalik. Lanegunetan, 18:00etatik 20:00etara

Erakusketa-salmenta egunero egongo da zabalik, lanegunetan zein jaiegunetan

eta zapatuetan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

SAN CLEMTENTERAKO

Azken urteotakoarekin segituz, batzen duten dirua Kolonbiako Andetan kokatuta dagoen Guatica herrirako izango da. Besteak beste, elikaduraren industriarekin, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako teknika eta ezagutza berriak zabalduko dituzten eskola-lantegiak eraikitzeko erabiliko du dirua Harreman elkarteak. Urteak daramatza Harreman-ek herri hartan lanean.

INFORMAZIOA

Eta horrekin lotutako informazioa ere emango du Harreman-ek Gabonetako azokan: han zer egin gura duten, zenbat diru batu duten orain arte eta zertarako...

Maalako Errabalaren urbanizazio lanak direla-eta, auzotarren eskaera

IBANE MADERA

Arrasateko alde zaharreko Egitamur Orokor bereziak zehazten ditu, besteak beste, Maalako Errabala urbanizatu egin behar dela; bereziki, Azoka kalera joateko dauden bidexka horiek.

Hain zuzen ere, urbanizazio

proiektuak Mondragones kalean aldaketaren bat zehazten zuen (kalearen lerrokadura, nondik joan behar den), baina, hori eginez gero, sei etxebizitza ordenazioz kanpo geratuko lirarteke. Hori dela eta, hango auzotarrek Udalarari eskatu diote arazoa konpontzeko bideak azter ditzan. Eta,

oraingo asteko Gobernu batzordeak erabaki du Udala gertu dagoela auzotarren eskaerak kontuan hartzeko, baina horretarako beharrezkoa dela aurretik kale horren urbanizazio proiektua egitea. Horren ondorioz, datorren urteko aurrekontuetan hori egiteko partida bat onartuko du Udalak.

LABUR

Maiatzaren Bata plaza hiritartzeko lan osagarriak egingo dituzte

Herriko ur zikinak batzeko kolektoreko lanak direla-eta, Maiatzaren Bata plaza hiritartu egin behar dute. Horretarako, Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak adostu dute bien artean egingo dituztela lanak.

Hala, Arrasateko Udalak 180.000 euro pasatxo inbertituko ditu Maiatzaren Bata plaza hiritartzeko lan osagarriak egiten. Horrekin batera, erabaki dute Construcciones Mariezcurrena enpresari adjudikatzea urbanizazio lan horiek, kolektorearen lanak egiten ari den enpresa berari, hain zuzen.

Gernika oinezkoen zumardiaren atzerapena dela-eta ezarritako isuna jaitsi egin du Udalak

Musakolatik Erguenera doan oinezkoen zumardia bukatuta egon beharko litzateke dagoeneko, baina ez da horrela. Horren ondorioz, Arrasateko Udalak erabaki zuen isuna ipintzea lanok egiten ari den Construcciones Galdiano enpresari. Hain justu ere, ia 27.000 euroko isuna ipintzea erabaki zuen Udalak.

Orain, isuna jaso duen enpresak Udalaren erabakia errekurritu egin du, eta enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta gero, Udalak erabaki du ipinitako isuna jaitsi egingo dutela. Horren ondorioz, ia 16.000 euro ordaindu beharko ditu enpresa horrek.

Kooperatibetako langileen argazkiak ipiniko dituzte Industria Erakusketan

Industria Erakusketa ireki zutenean, pentsatu zuten Union Cerrajeraren gaineko atalean moduan Kooperatibismoaren atalean ere beharrezkoa zela kooperatibetan lan egin dutenen argazkiak ipintzea. Edozelan ere, orduan ez zegoen aurrekontuetan sartuta. Baina orain, Gobernu batzordeak onartu egin du argazkien panel hori ipintzea. Hain zuzen ere, kooperatibetako 600 langileen argazkiak ipiniko dituzte. Guztira, 2.481 euro inbertituko ditu Arrasateko Udalak ekimen horretan.



Ur-jasak sortu dituen arazoak

Azken egunotako euri-jasen ondorioz, urak dezente goratu dira Arrasaten eta inguruetan. Argazkian ikusten dugunez, adibidez, Aita Menni ospitalean, martitzenean, ura sartu zitzaien garajeetara. Hango langileen esanetan, belanetarainoko ura izan zuten, gainera. Horrez gain, eta Udaltzaingoak jakinarazi digunez, Aretxabaletara bidean Lauaxeta izeneko etxe inguruan lur-jausi txikiak ere izan ziren. Eta herrian bertan, Bizkaia etorbidean, bereziki, ura nonahi izan genuen: putzuak, estolderiak gainezka... Eta Deba eta Aramaio errekek, bizi-bizi.

AED-N AGUR-AFARI HIRUKOITZA

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak azken urte honetan langile guztiak aldatu ditu. Itxarok, kultura eragileak, urte hasieran utzi zuen euskara elkarte (orduan, merezitako agur-afaria egin zioten). Itxaroren atzetik, baina, beste hiru langilek agur esan diote AEDri: Ander Elortondo idazkari lanetan ibili zen AEDn, eta Arrasateko Udalean dabil orain lanean. Nagore Aranburu gazte eragileak irailean esan zuen agur, eta Zahar Berri egitasmoaz arduratzen zen Belen Aranbarrik urrian utzi zuen kargu hori. Agur-afari hirukoitza egin zuten AEDko lagunek; asko dago kontatzeko, baina guztia ez dugu esango, ala?



SAN FRANTZISKO XABIER EGUNA MARTITZENEAN

Martitzenean, Arizmendi Ikastolako ikastetxe guztietan San Frantzisko Xabier Eguna ospatu zuten. Martitzenean, txistorra-janaz gain, hainbat kirol eta kultur ekintza egin zituzten Arizmendiko ikasleek, nahiz eta eguraldiak ez zuen askorik lagundu. Ikasleez gainera, argi dago irakasleak ere ederto ibili zirela.



HERRI ESKOLAKOAK ARROKAUNDIETAN

Herri Eskolako 5. mailako ikasleak Arrokaundieta gazte aterpetxean izan ziren azaroaren 25ean eta 26an. Arrokaundieta Pasai Donibanen dago, eta aterpetxea Pirata etxea bezala da ezaguna. Etxearen izenarekin bat egiteko, gazteek piratetan

jolastu ziren asteburu osoan. Besteak beste, ontziola bat bisitatu, portu aldetik txalupan itzuli bat eman... Orokorrean itsasoarekin eta piratekin zerikusia duten gauza mordoak egin zituzten. Argi dago gustura baino gusturago ibili zirela.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Anoetan egindako probetan ez zuten marka azpimarragarririk lortu

XABIER URZELAI

Joan den asteburuan, proba libreak izan ziren Anoetan. Proba horietan egindako markei esker, hainbat txapelketatan parte hartzeko aukera zuten jokoan atletak, eta denboraldi hasiera denez, Mondragoeko inork ez zuen marka azpimarragarririk egin.

Denboraldian barrena izango diren hainbat txapelketatan parte hartzeko, joan den asteburuan, gutxienezko marka batzuk egin behar ziren Anoetan izan ziren proba libretan.

Proba horiek egubakoitzean izan ziren, eta Arrasateko inork ez zuen marka aipagarririk egin. Hori ez da, baina, ezustea, egubakoitzean izandako eguraldi kaskarrak ez zituen-eta gauzak bate-re erraztu. Eurria eta hotza izan ziren protagonistak. Horrez gain, denboraldi hasiera denez, atletak ez daude sasoi betean; hortaz, oso gaitza da marka ona egitea.

Pertika-jauzian Lander Errastik 2,40 metroko jauzia egin zuen; luzera-jauzian Iñigo Zabalak 5,80 metroko marka egin zuen; 60 metro hesietan Ander Pérez de Arenaza eta Ander Trojaola izan ziren parte hartzen. Ander Pere-



XABIER URZELAI

Joan den urtean, Zuhaitz Ezpeleta izan zen Santamas Krosean azkarrena.

zek 10''30 segundo behar izan zituen lasterketa egiteko, eta Ander Trojaolak, 10''90 segundo; 300 metroetako lasterketan Ibai Irastorzak 41''30 segundo egin zituen eta Jon Ander Amadok, 42''50 segundo; eta 1.000 metroetako proban Ander Ansoategik bi minutu eta 55 segundo egin zuen.

Bestalde, domekan, Eibarko krosa izango da, eta Arrasateko hainbat atleta izango dira han.

25. SANTAMAS KROSA

Arrasate Atletiko Taldea dagoeneko Santamas Krosa prestatzen ari da. Herri lasterketa hori abenduaren 15ean izango da, eta aurten ere gaztetxoek lasterketak eta nagusien lasterketa izango dira. Krosak sei kilometro izango ditu, eta federatuek parte hartu ahal izango dute. Koadrilak ere izango dira protagonista.

FOTOKIROLA



Mondraren helburua: etxean hobetzea

Joan den astean, Mondrak 0-3 irabazi zuen Intxurreren zelaietan, eta beste behin argi utzi zuten etxean egiten ez dutena kanpoan egiten dutela: ondo jokatu eta gol mordoa egitea, alegia. Falta jaurtiketa baten egin zuen lehen gola Ekain Garinek, eta Jon Muruak egin zituen gainerako bi golak. Intxurrek hamar jokalarirekin jokatu zuen ia partidu osoa, eta horrek ere asko lagundu zuen. Gabonak bitartean geratzen diren bi partiduak irabaztea oso garrantzitsua izango da Mondrarendako. /X.U.

FOTOKIROLA



Arrasatearrak, tinko, lehenengo postuan

Arrasatearrek partidu gogorra jokatu zuten, domeka goizean, Garagartzako zelaietan. Etxekoek gogotik lan eginda 12-0 irabazi zioten Hernaniri. Eguraldi txarra egin zuen domekan, eurria izan zen nagusi, eta zelaia oso egoera txarrean zegoen. Lan eskerga egin zuten jokalariek, eta azken minutuetan egin zituzten etxekoek bi entseguak. Arrasateko lehenengo postuan jarraitzen du. /X.U.

BESAIDE

Besaide Mendi Elkartek eski irteera antolatu du abenduaren 14 eta 15erako

Besaide Mendi Elkartek eski irteera antolatu du abenduaren 14ko eta 15eko astebururako. Irteera Tena ibarrera izango da (Huesca). Zapatuan irtengo dira, goizeko bostetan. Parte hartzeko izena eman gura duenak abenduaren 9an eta 10ean izango du aukera, Besaideren egoitzan, arratsaldeko zazpi eta erdietan.

Datorren asteburuko eski irteeran parte hartzeko bete beharrekoak: federatuta egotea, mendiko eskiko materiala izatea, piolet eta granpoiak eramatea, eta eskiatzen apur bat jakitea. Material guztia ez daukanak Besaiden errentan hartzeko aukera izango du.

XAKEA


Denboraldiko bigarren jardunaldian arrasatearrek ez zuten barkatu

Joan den zapatuan, lehenengo mailako bigarren jardunaldia izan zen jokoan, eta Arrasateko taldeko xakelariek ez zuten barkatu, 3-1 irabazi zioten-eta Gasteizko Aranbizkarra taldeari.

Arrasate taldeko laukotea Luis Ortegak, Txema Hernandok, Jesus Berezibarrek eta Josu Tornayk osatu zuten. Hasiera batean mondragoetarrak irabazteko asmoarekin joan ziren, Aranbizkarra Ligako talde makalenetakoa delako, eta 3-1eko emaitza ona bada ere, motz geratu zaie. Arrasateko San Andres Xake Taldea bosgarren postuan dago, eta datorren asteburuan, Bilboko Rey Ardid B taldearen kontra neurtuko ditu indarrak.

SPORTLAND
SPORTLAND ARRASATE. Garibai Etorbidea. 2-6 Gipuzkoa

EZ HUTS EGIN KIROLA OPARITU



MIKEL ARANBURU

Kenci Arrasatek Donostian jokatu du asteburuan. Arrasatearrek etxetik kanpo oraindik ez dute punturik eskuratu.

SASKIBALOA

Kenci Arrasate 88-73 gailendu zitzaion Paules Carrefour taldeari

Iker Zubiriaren mutilek, kostata, denboraldiko hirugarren partidua irabazi zuten

XABIER URZELAI

Arrasatearrek irabazi egin zioten Barakaldoko Paules Carrefour taldeari, baina zapatuan Iturripera hurreratu zirenek ez zuten Kenci Arrasate onena ikusi. Emaizari erreparatuta, badirudi etxekoek erraz irabazi zutela, baina partiduan akats asko izan ziren.

Joan den zapatuan, Barakaldoko Paules Carrefour taldeak uste baino zailtasun handiagoak eman zituen, eta etxekoek kostata irabazi zuten partidua. Arrasatekoendako oso partidu garrantzitsua

zen, denboraldi hasiera kaskarra zuzentzeko asmotan ari direlako, eta partidu hori galtzea atzerapauso garrantzitsua izango zen. Lehenengo minutuan izan ezik, arrasatearrek izan ziren beti aurretik markagailuan. Hasiarako laurdena ikusita bazirudien etxekoak erraz nagusituko zirela, baina emozio izpi bat jartzeko-edo, Arrasateko mutilek hutsegite handiak egin, eta bizkaitarrak hurreratzea ahalbideratu zuten. Bigarren laurdena amaitzerakoan etxekoek bost puntu-ko alde bakarrik zeukaten, baina atsedendialdiak on egin zien, eta hirugarren jardunaldian parti-

dua erabakita utzi zuten. Kanpoko taldeak ez zuen partidua irabazteko meritu handirik egin, baina arrasatearrek ere ez ziren beste batzuetan bezain ondo ibili.

HELBURUA: KANPOAN IRABAZTEA

Oraingo asteburuan, Kenci Arrasatek kanpoan jokatu du. Arrasatearrek Donostiaraino joango dira, Santo Tomas Lizeoa taldearen kontra jokatzera. Kencik orain arte Arrasaten bakarrik irabazi du, eta bada ordua kanpotik ere punturen bat edo beste ekartzeko. Eta oraingo asteburuko partidua aukera aproposa izan daiteke horretarako.

FOTOKIROLA



David Galán, Euskadiko onena

Joan den astean, Arrasateko Saioa gimnasioko sei karateka izan ziren Euskadiko Karate Txapelketan, eta Iban Galán, 65 kilotan, junior mailan txapeladuna izan zen. Jon Rodríguez 70 kilotan txapeladunordea izan zen eta Goizeder Caballero eta Oliver Sánchez hirugarren izan ziren euren kategorietan. Oraingo asteburuan, Espainiako Txapelketan parte hartzeko egingo diren entrenamenduetan izango dira. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

SAILKAPENA

A MULTZOA			B MULTZOA		
	P	J		P	J
1. Makanaki	10	6	1. AC Surcos	10	5
2. Iriztu Taberna	9	6	2. Koka Juniors	10	6
3. Goma-2	9	6	3. Dribling.es.vg	10	6
4. You Know!	8	6	4. Fuxxion	8	6
5. Saukelu Scream	7	6	5. AT Celaya	7	6
6. Betrayer	7	6	6. Aurrera Bolie	7	5
7. Komando Alpargat	7	6	7. Bikain Akademia	7	6
8. Etxerat	6	6	8. Etxinai!	6	6
9. Al Kaeda	5	6	9. El Ekipo A	6	6
10. NS/NC	5	6	10. Fraguél Gol	5	6
11. Lasagabaster	3	6	11. Billy & The cowboys	4	6
12. Rayo Aldeano	3	6	12. Saloga	2	6
13. Maldifa's	3	6	13. Whiskeria	0	6
14. Abocajarro	2	6	14. Estu Ta Larri	0	6

EMAITZAK

A MULTZOA		B MULTZOA	
Saukelu Scream - Betrayer	1-10	El Ekipo A - Koka Juniors	0-9
Maldifa's - Makanaki	3-6	Billy & The Cowboys - Bikain Akad	3-9
Goma-2 - Al Kaeda	5-3	Saloga - AC Surcos	3-14
Rayo Aldeano - Komando Alpargat	0-1	Driblin.es.vg - Etxinai!	11-3
Abocajarro - Etxerat	6-7	Fraguél Gol - AT Celaya	6-6
Lasagabaster - You Know!	3-4	Estu Ta Larri - Aurrera Bolie	1-18
Iriztu Taberna - NS/NC	7-6	Whiskeria - Fuxxion	1-5

ASTEBURUAN, ATSEDENA

BEHARREZKO ATSEDENA, ANIMUAK BARETZKO

Oraingo asteburuan ez da partidurik izango Zaldibarko Txapelketan, zubia delako, eta argi dago aurreko etenaldian bezala, etenaldi hau ere oso ondo etorriko dela, jokalar asko bero-bero joaten dira-eta Zaldibarrera.

Zaldibarko antolakuntzak, beste behin, hainbat jokalar zigortzea erabaki du. Bikain Akademia taldeko jokalar batek bi partiduko zigorra bete beharko du, Billy & The Cowboys taldeko beste jokalar bati eraso egiteagatik. Horrez gain, Whiskeria taldeko beste jokalar batek partidu bateko zigorra izango du, partiduan istilu guztietan izan zelako. Eta, azkenik, Saukelu Scream, Billy & The Cowboys, Bikain Akademia eta Whiskeria taldeek lasaia jokatu beharko dute.

GOL ZAPARRADA EDERRAK

Joan den asteburuan, Betrayer, Koka Juniors, AC Surcos, Dribling eta Aurrera Bolie taldeek lana ederki egin zuten. Bost taldeen artean 62 gol egin zituzten. Argi dago eguraldi txarreakin talde batzuk hobeto ibiltzen direla, edo beste batzuk makalago.

KIROLAGENDA

**JOKATZEKOAK
FUTBOLA**

Mondra - Elgoibar
Erregionala. Egubakoitza. 15:30. Atxabalpen.

Mondra - Elgoibar
Neskak. Egubakoitza. 11:00. Atxabalpen.

ERRUGBIA
Seniorrak: atsedena
At. San Sebastian - Arrasate
Kadeteak. Egubakoitzean. 10:30. Donostian.

Arrasate - Mungia
Gazte maila. Egubakoitzean. 12:00. Elorrión.

SASKIBALOA
Santo Tomas Lizeoa- Kenci Arrasate
Seniorrak. Domekan. 12:00. Donostian.

ESKUBALOA
AGR Arrasate - Arrasate (Derbia)
Seniorrak. Gaur. 20:00. Iturripen.

AGR Arrasate - Donibane Majestic
Seniorrak. Zapatuan. 17:00. Iturripen.
Donibane Cottal - Arrasate
Seniorrak. Domekan. 11:00. Pasaian.

**EMAITZAK
FUTBOLA**

Erregionala: Intxurre - Mondra 0-3

SASKIBALOA
Seniorrak: Kenci Arrasate - Paules 83-72
Junior mut.: Arrasate - Aloña Mendi 50-32

ERRUGBIA
Seniorrak: Arrasate - Hernani 12-0

ESKUBALOA
Urola - AGR Arrasate 24-30
Arrasate - BKL CAF 22-19

XAKEA
Aranbizkarra - Arrasate San Andres 3-1

ESKUBALOIA

Arrasateko senior mailako talde biek irabazi egin zuten aurreko asteburuan

Talde nagusiak 24-30 irabazi zuten, Zumarragan, eta bigarren taldeak 22-19 irabazi zion Beasaini, Iturripen

XABIER URZELAI

Joan den asteburuan, emaitza aldeko izan zuten Arrasateko senior mailako talde biek. AGR Arrasatek lehenengo postuetan jarraitzen du, Zumarragan irabazi eta gero; bigarren taldeak, bestalde, lehenengo partidua irabazi zuten, Beasaini kontra, eta azken postuak beste batzuetarako utzi ditu.

Emaitza aldeko izan zuten talde biek, baina ez zuten gura bezala jokatu, eta uste baino partidua parekatuagoak izan ziren. Senior mailako talde nagusiak, AGR Arrasatek, Zumarragan jokatu zuten, Urola taldearen kontra.

Urola gogotsu irten zen kanxara, eta berehala hartu zuten aurre markagailuan. Arrasatearek, baina, partiduari ondo eutsi zioten, eta 13-12 erretiratu ziren aldageletara. Bigarren zatian gauzak dezente aldatu ziren. Mondragoetarrek lehenengo zatian egindako hutsak zuzendu, eta azkarrago jokatu zuten. AGRko

mutilak jarri ziren aurretik, baina Urolak ere ez zuten behera egin; horrenbestez, norgehiagoka parekatua izan zen, eta azkenean ere, arrasatearrak nagusi ziren (24-30).

BIGARREN TALDEAK, IRABAZI

Bestalde, senior mailako bigarren taldea 22-19 gailendu zitzaion Beasaingo BKL CAF taldeari. Beasaingo taldea Arrasatekoarekin batera sailkapeneko azken postuetan zegoen, eta argi zegoen partidua parekatua izango zela. Partidua ez zen oso ikusgarria izan, batez ere, lehenengo zatian; Arrasateko defentsa ez zen gai erasotzaileak geldiarazteko.

Bederatzinako berdinketarekin iritsi ziren lehen zatia amaierara, eta bigarren zatian Arrasatekoen jokoak hobera egin zuten. Etxekoek defentsa berriro antolatu, eta Beasaingoen erasotzaileak gelditzea lortu zuten. Arazo hori gaintuta, etxekoek hartu zuten aurre markagailuan, eta BKL CAF taldea esku hutsik bueltatu zen Beasainera.



Partidua parekatua jokatu eta gero, senior mailako bigarren taldeak denboraldiko lehenengo partidua irabazi zuten.

MIKEL ARANBURU

**Ikus eta egiazta itzazu
Mapfreren prezioak!**

SIETE 7

LÍDER

TODO RIESGO 100

POLIZA

POLIZA*

POLIZA

FORD FOCUS 1.8 TDCI GHIA (115 ZP)	427,01 €	746,97 €	902,50 €
AUDI A4 TDI AMBITION	465,97 €	1.097,10 €	1.435,90 €
OPEL CORSA 1.7 DI SRI	384,35 €	570,02 €	695,27 €
RENAULT KANGOO 1.5 DCI EXPRESSION	450,77 €	728,57 €	857,93 €
RENAULT SCENIC 1.9 DTI ALIZE	488,44 €	954,15 €	1.193,70 €
BMW 318 TI COMPACT	505,29 €	962,27 €	1.196,29 €
CITROEN XSARA PICASSO 1.6	433,68 €	780,19 €	952,58 €
CITROEN BERLINGO 1.4 MULTIVOLUMEN	414,59 €	617,32 €	757,08 €


ADIERAZITAKO KOPURUAK BEZERO HONI DAGOKIO: 31 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO GIDABAIMENAREKIN ETA %35EKO BONUSAREKIN. BESTE BONUS BATZUEN BERRI IZATEKO, GALDE EGIGUZU.

*ARRISKU OROKO ASEGURUA FRANKIZIAREKIN.



MAPFRE

Garibai 16, Arrasate. Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22.



AEDko eta Elkar argitaletzeko ordezkariak Donostiako Bilintx Megadendan eman zuten prentsaurrea.

Jokin Zaitegi Sariketan Literaturako Nobel sariak euskaratuko dituzte

IKER BARANDIARAN

Dagoeneko hamasei urte bete dira AED euskara elkarteak Jokin Zaitegi Itzulpen Sariketa sortu zuela. Sariketak ospea hartu du euskararen eta euskal kulturaren esparruetan. Sariketako antolatzaileek aurtengo aldian aldaketa nabarmenak iragarri dituzte.

Aurten, AEDk hamaseigarren aldiz antolatutako du Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariketa. Eta dagoeneko sariketa horrek ospe handia hartu du. Dena dela, iaz, AEDko Kultura batzordeak sariketaren beraren gaineko hausnarketa sakonia egitea erabaki zuen. Sariketaren helburuak argi eta garbi zehaztu zituzten: kalitatezko emaitza ziurtatzea, argitalpena ziurtatzea, ekonomikoki bideragarria izatea, gaurkotasuneko gai edo arlo bat jorratzea, euskarak hutsuneak dituen arloak hobetzea, Jokin Zaitegiren pentsaera islatzea eta sariketa horren iraupena eta konstantzia bermatzea, besteak beste.

LITERATURAKO NOBEL SARIKAK ITZULI

Behin helburuak zehaztuta, AEDko Kultura batzordeak hainbat aukera aztertu zituen, eta, azkenean, Jokin Zaitegi Sariketa Literaturako Nobel Sariak Euskaratzeko Beka sortu du. AEDko ordezkariak Elkar argitaletxearekin harremanetan jarri dira, eta lan-kidetza hitzarmena sinatu dute: Urteko Nobel saria ematen dioten idazlearen lan bat aukeratu, haren egile eskubideak erosi eta itzulpen lehiaketan irabazle ateratzen denari, aukeratutako liburu

*Imre Kertész
hungariarraren
(2002ko Nobel saria)
liburu bat
euskaratuko dute*

*Liburuko hiru orri
hoberen euskaratzen
duenak 3.500 euro
jasoko ditu liburu
osoa euskaratzeko*

horren itzulpena eskatu eta finantzatuko dute. Euskarazko liburu hori Elkar etxeak argitaratuko du, eta Durangoko Azokan aurkeztuko dute.

Urtero, Literaturako Nobel saria izendatzeaz bat, urrian, idazlearen berri jaso eta itzuliko duten liburua aukeratuko dute. Egile eskubideak lortu beharko dituzte, baita testu originalak eskuratu ere. Behin epaimahaia eta lana gainbegiratu duen taldea aukeratu, Durangoko Azokarekin batera beka deialdia egingo dute.

IMRE KERTÉSZ HUNGARIARRAREN LANA Aurtengo Literaturako Nobel saria Imre Kertész hungariarra izan da, eta hark idatzi dituen sei eleberrien artean *Sorstalanság* liburua aukeratu dute, berau itzuli eta argitaratzeko. Lan horrek 260 orri

inguru ditu gaztelaniazko bertsiotan. Dena dela, antolatzaileek hungariaraz dakien euskal itzultzailerik ez dagoen susmoa dute, parte hartu gura duten itzultzaileei alemanezko bertsiotik abiatzea gomendatu diete. Itzulpena bukatzean, epaimahaikideek eta euskaraz dakien Karoly Morvay hungariarrak gainbegiratu dute lana.

LEHENENGO HIRU ORRIALDEAK ITZULI

Sariketan parte hartzeko interes dutenek liburu horren lehenengo hiru orrialdeak euskaratu beharko dituzte, eta egindako lanen hiru kopia, goiburuarekin, AEDra bidali beharko dituzte, 2003ko urtarrilaren 17a baino lehen. Lehen hiru orrialdeei dagozkie testuak AEDri edo Elkar argitaletxeari eskatu diezaiekete, edo, bestela, Internet bidez jaso, honako helbidean: www.elkarlanean.com. Jasotako lanen artean, 2003ko urtarrilaren amaiera baino lehen, epaimahaia itzultzaile bat irabazle izendatuko du. Irabazleak 3.500 euro izango ditu *Sorstalanság* eleberrira oso-osorik itzultzeko: diru erdia jakinarazpena egitean emango diote eta beste erdia lana amaituta entregatu ostean. Lana amaituta emateko epea 2003ko irailaren 1ean bukatuko da, eta Elkar argitaletxera bidali beharko da. Elkar etxeak eskubideak aurrez eskuratu argitaratuko du *Sorstalanság* eleberrira euskaraz, eta 2003ko Durangoko Azokarako liburuak kalean egon beharko du.

Joan den martitzenean, AEDko eta Elkar etxeko arduradunek Jokin Zaitegi Sariketa berritua aurkeztu zuten, Bilintx dendan.



IKER BARANDIARAN

Prentsaurrean, Hauspoz Akordeoi elkarteko eta Udaleko ordezkariak.

Arrasateko Akordeoi Lehiaketak hasi dira

I. B.

Joan den egunean, Euskal Herriko Hauspoz Akordeoi Elkarteko eta Arrasateko Udaleko ordezkariak Nazioarteko X. Akordeoi Lehiaketa aurkeztu zuten. Gipuzkoako 23. Akordeoi Lehiaketa eta Gipuzkoako XV. Jaialdia ere antolatu dituzte.

Joan den egunean, azaroak 28, Euskal Herriko Hauspoz Akordeoi Elkarteko presidente Joxean Anduagak, Arrasateko alkate Xabier Zubizarretak eta Arrasateko Udaleko Kultura zinegotzi Juan Ramon Arkauzek Arrasateko Akordeoi Lehiaketak aurkeztu zituzten. Izan ere, joan den martitzenetik, abenduak 3, domeka arte, Nazioarteko X. Akordeoi Lehiaketa, Gipuzkoako 23. Lehiaketa eta Gipuzkoako XV. Jaialdia egingo dituzte, Amaia Udal Antzokian.

Nazioarteko X. Akordeoi

Lehiaketan hogeita bi musikarik hartuko dute parte. Lehiaketara Georgiatik, Ukrainatik, Jugoslaviatik, Poloniatik, Errusiatik eta Txinatik etorri dira, besteak beste. Eta Iban Galdos oiartzuarrak ere parte hartuko du; euskaldun bakarra izango da.

Horrez gain, Euskal Herriko Hauspoz Elkarteak, Udalaren eta beste elkarte batzuen laguntzarekin, Gipuzkoako 23. Akordeoi Lehiaketa antolatu du. Haurren taldean 13 urte arteko parte hartzaileak lehiatuko dira; gazteenen, 14tik 17 urte artekoak; eta seniorren taldean, 18 urtetik gorakoak. Hirurehun bat lagunek parte hartuko dute, gehienak gipuzkoarrak, baina baita espainiar batzuk ere.

Lehiaketa horiekin batera, XV. Akordeoi Jaialdia ere antolatu dute. Iazko lehiaketaren irabazleak, Mikhail Burlakov-ek, eta beste musikari askok kontzertuak emango dituzte herriko hainbat lekutan.

KULTURAPILULAK

Arrasateko Gazteen Kontseilurako Logotipo Lehiaketa antolatuko dute

Azaroaren 27an eginiko bilkuran Gazteriaren batzordeak Arrasateko Gazteen Kontseiluak aurkeztutako Logotipo Lehiaketarako oinarri arauak eta aurrekontua landu zituen. Batzar hartan oinarri arauak eta aurrekontuak zehaztu zituzten, eta Gazteria batzordeak lehiaketa hori aurrera eramateko oniritzia eman zuen. Lehiaketa deialdia 2002ko abenduan egitea erabaki zuten, eta sarien artean hiru kategoria bereiztuko dira: batek 180 euroko saria jasoko du; beste batek, 360 eurokoa; eta azkenak, 750 eurokoa.

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak hiru egunez 'Los Gavilanes' zarzuela eskainiko du

Arrasateko eta Bergarako partaidez osatutako Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak beste zarzuela bat prestatu du. Ikuskizun berria *Los Gavilanes* zarzuela da, eta hiru egunean eskainiko dute Arrasaten: abenduaren 13an, egubakoitzan; abenduaren 14an, zapatuan; eta 15ean, domeka. Emanaldi guztiak Amaia Udal Antzokian egingo dituzte, 19:30ean. Zarzuela horren zuzendaria Tere González izango da, eta Alfredo González Chirlaquek zuzendutako Bergarako Orkestra Sinfonikoaren laguntza izango dute.

Sarrera hamabost euro kostatuko da, eta dagoeneko abenduaren 2a ezker sarrerak salgai daude. Arrasaten, Zabaleta lurrindegian eta Monte tabernan jarri dituzte sarrerak salgai. Eta Bergaran, Guria tabernan dituzte sarrerak salgai. Ziurrenik, oraingoan ere sarrera guztiak salduko dituzte. Ea, bada, aurreko zarzuelen adinako arrakasta lortzen duten!

GUREGAIAK / JOKO BERRIAK

Gazteak beste joko batera zaletu dira: 'Magic Rol' delakora

IKER BARANDIARAN

Aspaldian, gazteak eta ez hain gazteak karta berezi batzuk eskuetan dituztela ikusi ditugu. Jokoan aritzen dira, eta jokalaria batek besteari karta ugari irabaz diezazkioke. Joko hori *Magic Rol* deitzen da.

Gaur egun, telebistak eragin handia dauka, eta, gainera, gazte-txoak ez dira edozein jokorekin konformatzen. Modan dagoen azkeneko jokoak, edo, behintzat, horietako bat, *Magic Rol* izenekoa da. Iraganean, Arrasateko eta ibarreko gazteek hiriburuetara jotzen zuten karta horiek erostera. Gaur egun, ordea, Arrasaten dago ibarreko saltoki bakarra. Fantasiako irudiak dituzten kar-

'Magic Rol' deritzon jokoan aritzeko, hirurogei karta baino gehiago behar dira

ta horiek oihartzun handia izan dute, eta joan den zapatuan, San Andresko Gazte Txokoa, goizetik hasita iluntzera arte, hogeita bi gazte aritu ziren jokoan.

OSO JOKO GARESTIA

El Señor de los Anillos eta antzeko fantasiako istorioen itxuraz-



KEPA ERRASTI

Herriko gazteek trebezia handia erakusten dute karta horiekin jokatzeko.

ko irudiak dituzten karta horiek euro kostatzen da, eta horiekin jokatu ahal izateko, gutxienez, bakoitza -hamabost karta- lau hirurogei karta behar dira.

LOTSABARIK / Junkal Idoate

"Arrasaten ligatzen da; bai horixe!"

IKER BARANDIARAN

Junkal oso prestu agertu zen ARRASATE PRESSko *Lotsabarik* elkarrizketa egiteko. Beste askok ez bezala, Arrasaten ligatu egiten dela dio Junkalek. Medikua izan gura du, eta hori ikasteko asmoa dauka.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Ile-apaintzaile izan gura nuen. Arrebari, uzten zidanean, ilea orrazten nion. Edozelan ere, dagoeneko iritzia aldatu dut: orain, mediku izan gura dut. Aita medikua dut, eta hark beste lanbide bat ikasteko esaten didan arren, mediku izan gura dut.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkonduta egongo naizela uste dut. Hiru bat ume izango ditut eta Arrasaten bizi izango naiz; eta, ahal bada, lanean ibiliko naiz.

• Zein da, zeure iritzi, adin ideiala?

19 urte, ikastera etxetik kanpo joan daitekeelako.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei, ikasketei eta familiari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Ikasketek arduratzen naute.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jende berria ezagutzeak.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Barre asko egiten dut, baina pazientzia txikia daukat, eta batzuetan biziki haserretzen naiz.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Nire oinak gustuko ditut, txikiak dauzkadalako.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Lehenik eta behin, aurpegiari begiratzen diot; gero, mutila bera ezagutzen ahalegintzen naiz.

• Arrasaten ligatzen da?

Bai, izan ere, hemen, Arrasaten, ligatzen ez dela esaten dute nek ez dute egia esaten. Arrasaten, beste edozein lekutan moduan, ligatzen da; bai horixe!



ADINA: 13 urte • IKASKETAK: DBHko hirugarren maila • ZALETASUNAK: Musika entzun eta akordeoia jo
LIBURU BAT: 'Campos de fresas' • FILM BAT: 'Los otros' • MUSIKA TALDEA: Ken 7 • KIROL TALDEA: Reala

E.TXO!

GAZTETXEAREN GAINEKO MINTEGIA, ABERASGARRIA

Joan den asteburuan, Arrasateko Gazte Batzarrekoek mintegia egin zuten Garaioko etxean. Hogeitabat gazte batu eta etorkizuneko gaztetxearen gainean eztabaida eta hausnarketa egin zuten. Hotz handia pasatu zuten arren, oso aberasgarria izan zen mintegia. Funtzionamendu orokorra erabaki zuten, gaztetxe barruko lokalen erabilera adostu zuten eta taberna zelan eraman eztabaidatu zuten, besteak beste. Gazteek oraindik Arrasateko Udaleko ordezkariekin batzar batzuk egin behar dituzte, baina baikor dira.

'LARUNBLAI'-KO IRTEERA GASTEIZKO TXIKIPARKERA

Txatxilipurdik Gasteizko Txikiparkera irteera antolatu du, abenduaren 14an, *Larunblai* lelopean. 10:00etan irtengo dira, eta 14:00etan bueltan izango dira. Izena eman behar da Okendoko edo Santa Marinako ludoteketan edo Txatxilipurdin, abenduaren 9a, astelehena, baino lehenago. Aurreko astean, prezioak gaizki jarri genituen. Honako hauek dira prezioak: bazkideek eta anai-arrebeek bost euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, sei euro.

GAZTE TXOKOETATIK GASTEIZERA PATINATZERA

Txatxilipurdik Arrasateko hiru gazte txokoetatik Gasteizera patinatzerara joateko txangoa antolatu du. Abenduaren 14an, zapatua, joko dute patinatzerara, eta interesatuta dauden gazteek izena eman beharko dute, ahalik eta lasterren, Txatxilipurdik Pablo Uranga kalean daukan egoitzan edo Musakolako, San Andresko edo Erguingo gazte txokoetan. Animatu eta parte hartu!



EGIN BEZAGUN
BAKOITZAK GURE
AHALEGINTXOA



Zahar Berri
Pablo Uranga 4, behea
Telf.: 943 711 721
943 771 228
zaharberri@zedelkarta.com

BEHEKODENDATIK

Ines Murillo

AKELARRE ESKULANAK DENDAKUE

XABIER URZELAI

Apirillien zabaldu euen dendie, baiñe Inesek badaki denda baten lan egittie ze dan, urte askuen ibilli da-eta Usoa jertse dendan. Eskulanak betidanik gustau izen jako, eta Mondraguen holako denda baten faltie igerketan euen, Gasteizera jueten zan-eta gauzak erostera. Eta oin, Ines bera saltzaille.

Amets bat?

Amets asko dauket. Eta amets txar bat? Ez dauket amets txarrik. Ez naz pertsona negatibie.

Egin dozun azken biajie?

Abuztuen, Extremadurara.

Txartel horixe, zeine?

Prestige barkokuei.

Eta gorrixe?

Espainiako gobernuari, gauzak txarto egittiarren.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?
Titanic gustau jaten / Eskularen liburuak gustetan jat / La Oreja de Van Gogh, adibidez.

Drogak legalizauko zittukie?

Ez, hori argi dauket.

Eta prostituziñue?

Baietz usté dot.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Gurago dot diskotekak.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Etxeko zapatillak. Etxera ailegau aurretik zapatak kendute eukitten dittut.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Dana, jeneralien.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Umiendako gauza gehixago jarriko neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Gauza bera, umiendako eta gaztiendako gauza gehixago egingo neuke.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Ez dauket jñor buruen.

Eta ezagutu nahiko zeunke-



“Eskulanak umien eta nagusixen gauzie ziela uste neuen, baiñe argi dago ez dala holaxe”

ena?

Bereziki, iñor be ez.

Tranpan ibilttekotan norbaitekin, zeinekin?

Askó aldatu biherko neuke tranpetan ibiltteko.

Bizio bat?

Lan hau.

Mendi bat?

Mendixe baino gehixago, Udalaldie gustetan jat.

Ze dauketzu sobran?

Ezer be ez.

Eta faltan?

Ez dauket ezer sobran ezta faltan be.

Telebisiñoko programa bat?

Tontokerixak baiñe ez die egoten. Albistegixek-edo.

“Mondraguen holako denda bat biher zan, gauzak erostera Gasteizera jueten nitzen-eta”

Eta irratikue?

Radio Euskadi entzuten dot.

Eskulanak: umien eta nagusixen kontua bakarrik?

Neuk be hori uste neuen, baiñe argi ikusi dot ez dala holaxe.

Ze eskulan egiten da gehixen?

Jentiari egurrakin lan egittie gustetan jako.

Mondraguetarrak abillak gare eskulanetan?

Bai, artistaren bat edo beste badago. Askok oso gauza politte egitten dittue.


Sasoi ona da hau etxien, epelipeli, eskulanak egittieko.

Eguraldi txarra egitten dauenien, etxien, argi egokixakin, eskulanak egittie gozada haundixe da.

NIREBIDAIAHURA / Gaizka Untzueta

New Orleans / 2001eko uztailetik 2002ko uztaiera arte

Gaizka irakaslea da, eta joan den urtean, AEBetara joateko aukera izan zuen. Buruari buelta bat baino gehiago emanda onartu zuen hara joatea, eta ez da damutzen. Lehenengo astea Batan Rougen igaro zuen. Hotel baten Espainiako eta Hego Amerikako hainbat irakasle elkartu zituzten, eta lehenengo aste hartan ikasturtean barrena emango zituzten irakasgaiak gainbegiratu eta hainbat aholku eman zieten. Horrez gainera, norbait damutzen hasia bazen, oraindik garaiz zegoen mailetak egin eta etxera bueltatzeko.




“Irakasle izatea ez zen batere erraza; ikasleek paso egiten zuten”

“Irakasle guztiak elkarrekin egon ginen aste hartan. Hainbat aholku eman zizkiguten: lehenik eta behin, argi eta garbi esan ziguten gelan borrokaren bat izanez gero, tartean ez sartzeko; zuzenean ikastetxeko segurtasun agenteei deitzeko. Horrez gainera, neska batekin gelan bakarrik ez gelditze esaten ziguten, badaezpada ere”.

Argi dago New Orleanseko ikastetxeetan ez dela giro: “Ikastetxera sartzeko armak detektatzeko makinak daude; guztira, 800 ikasle zeuden, eta bi ikasle baino ez ziren zuriak”.

Gaizkak ez zuen inolako arazorik izan, baina irakasle lana ez da batere erraza: “Gazteek paso egiten zuten, ez zuten ezer ikasteko gogorik azaltzen, eta nik gaztelania ematen banuen ere, askotan ingelesa irakasten nuen, euren hizkuntzan idazten ere ez zekiten-eta”. Ikasturteak aurrera egin ahala, ikasle batzuek arreta apur bat jartzen zuten: “Hala ere, udaberrria etorri bezain pronto jende asko ez zen klasera etortzen. Horrez gain, urte osoan ikasle izandako neska batek etortzeari utzi zion, eta haurdun zegoela enteratu nintzen”. Edozelan ere, sekulako esperientzia izan zela dio Gaizkak, bai irakasle lan egitea, baita han bizi izatea ere. AEBetako hegoaldea Hirugarren Mundua ei da: “Hegoaldea ez da Kalifornia edo Texas modukoa”. Gasteizen bizi da Gaizka, baina hiru urterako biza zeukan, eta batek daki: agian, bueltatu ere egingo da.

XABIER URZELAI



Gaizka Untzueta, ikasle batzuekin egindako argazkian.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



AITOR URIZAR

Abaroako bazkide mordoxka gustura aritu zen karta-jokoan; eta beste asko ere, gustura, parte hartzaileen jokoak ikusten.

Mus, briska, tute eta billar txapelketak jokatu zituzten Abaroan

IKER BARANDIARAN

J oan den eguaztenean, azaroak 28, Abaroa elkarteak mus, tute, briska eta billar txapelketak jokatu zituzten. Hogeita bat bikote karta-jokoan ibili ziren eta beste bi lagun, billarrean.

Musean sei bikote ibili ziren, eta horien artean emakume bakarra zegoen. Izan ere, emakume horrek, Consuelok, oso joko ona egin zuen, eta haren jokoak ikusmina piztu zuen. Briskan, berriz, hamar bikote ibili ziren, eta, ohikoa den moduan, bikote horietatik, gizonen bikote bakarra zegoen. Tutean ere izan zen zer jokatu: bost bikote izan ziren nor baino nor gehiago; emakume bakarra ibili zen tutean.

IKUSLEAK, BARRA-BARRA

Jende asko hurreratu zen Abaroara bazkideen joko ikustera, eta ikusle bat baino gehiago mahaian jokoan ari zela zirudien. Billarrak, ordea, ez zuen halako ikusminik piztu; izan ere, billarreko banakako txapelketan

bi gizon bakarrik lehiatu ziren: Roberto eta Juan, hain justu ere.

16:00ak aldera, parte hartzaile guztiak, berrogeita lau lagun, Abaroan batu ziren, eta batzarrereko arduradunekin zozketa egin ondoren, prestatutako mahaietan jarri ziren. Batzarrereko arduradunak eta ikusle mor-

doa zelatan zituztela, 19:30ak aldera, karta-jokoan ibili ziren.

Abaroa elkarteak oraindik ez du esan zeintzuk izan diren irabazleak; edozelan ere, abenduaren 17an, elkartearen bertan sari banaketa egingo dute, eta parte hartzaile guztiek askaria izango dute, batzarrak prestatuta.

Musakolan ere karta-joko txapelketak egingo dituzte abenduan

Musakolako zaharren elkartekoak aspalditik kexu dira euren egoitzan berbaldiak eta bestelakoak antolatzeko leku faltan daudelako. Arrasateko Udalarekin hitzartuta dute San Antolin eskola dagoen lekuan egoitza berria izango dutela, baina oraindik itxaron beharrean daude.

Musakolako zaharren batzarrak ekintzak antolatzeko ahaleginak egiten ditu, eta, batez ere, negu aldean lanean fin ibiltzen dira. Gutxienez, urtean birritan, karta-joko txapelketak antolatzen dituzte: bata, San Isidro jailetatik gertu; eta bestea, abenduan. Aurten ere karta-joko txapelketak antolatu dituzte: datorren astelehenetik (abenduak 9) eguenera arte, briska, mus eta tute txapelketak izango dituzte, eta erretiratu asko animatuko den dudarik ez dago. Horrez gainera, abenduaren 20an, 75 urte baino gehiago dituztenei omenaldia egingo diete.

LABUR

Toki Argi zaharren elkarteak Gabonak eta Santa Luzia Eguna ospatuko ditu

Toki Argi zaharren elkarteak Gabon kutsua dute dagoeneko, jaiotza erraldoia jarri dute eta. Gainera, Gabonetako otarra ere prestatu dute. Bestalde, apirilean Fatimara bidaia antolatu gura dute, eta hori ondo prestatzeko, abenduaren 13an (egubakoitza), batzarrarekin egingo dute. Batzarraren ondoren, txokolate-jana izango dute, eta gero, dantzaldia, *Quintanilla* akordeoi jotzailearekin.

Uribarrikoek Bilbora txangoa antolatu dute: Santo Tomaseko azokara, hain justu ere

Abenduaren 20an, Uribarriko zaharrek txistorra-jana antolatu dute, elkartearen bertan. Horrez gain, abenduaren 21ean, Bilbora, Santo Tomaseko azokara, txangoa prestatu dute. Autobusa 09:00etan irten-go da. Autobuseko txartelak abenduaren 9an, 16:30ean, emango dituzte, zozketa bitartez. Horregatik, inor ez dadila goizetik txanda hartzera joan. Txartela hemezortzi euro kostako da.



Abaroako Gabon-otarretarako txartelak

Abaroa zaharren elkarteak Gabonetako bi otar prestatu ditu. Ia urteroko ohiturari jarraituz, elkartekoek janari eta edari mordoa erosi, eta otar dotore bi prestatu dituzte. Abaroa elkartearen bulegoan eta Abaroako tabernan otarretarako txartelak saltzen ari dira, eta dagoeneko ia agortu dira txartelak. Edozeinek eros ditzake, bazkide izan edo ez izan. Abenduaren 22ko Loteriako lehenengo sariaren zenbaki berak dituenak otar handiena jasoko du. Eta bigarren sariaren zenbakia duenak, beste otarra. Biak hala biak dotoreak dira oso. //B.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Gili Gili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iurriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



ARRASATE
Aina Álvarez
Abenduaren 7an, 11 urte.
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Ane Arana
Abenduaren 1ean, 4 urte.
Zorionak! Osaba Lalo, izeba Arantxa eta amama.



ARRASATE
Gorka Llodio
Abenduaren 3an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak eta aiton-amonak.



ARRASATE
Fermin Sierra
Abenduaren 6an, 14 urte.
Zorionak! Gurasoak eta arreba.




ARRASATE
Olaia González
Abenduaren 16an, 5 urte.
Zorionak! Aitaita-amamak, gurasoak eta Julen anaia.



ARRASATE
Rakel Nieto
Abenduaren 8an, 23 urte.
Zorionak! Lutxiren partetik, patxo bat.



ARAMAIO
Irati Errasti
Abenduaren 1ean, 14 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Joxe Gardoki
Abenduaren 3an, 50 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Patxi Garai, Jone Ezkurra eta Xabi Garai
Patxi, abenduaren 8an, bat gehiago; Jonek, azaroaren 19an, beste bat; eta Xabik, abenduaren 3an. Zorionak! Aupa, Udala! Etxekoak.




ARRASATE
Saioa Garai
Abenduaren 4an, 2 urte.
Zorionak! Aupa, Udala! Etxekoak.



ARRASATE
Kontxita Juantorena
Abenduaren 8an. Zorionak! Aupa, Udala! Etxekoak.



ARRASATE
Goizane Atxaga
Abenduaren 5ean, beste urtetxo bat. Zorionak! Lehengusuak.



ARRASATE
Javier Castillo
Abenduaren 3an, 50 urte.
Zorionak, gazte! Etxekoak.



ARRASATE
Andoni Bragado
Abenduaren 3an, 24 urte.
Zorionak, mutikote! TMT.



ARRASATE
Julen Moron
Abenduaren 7an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Arrasate:

ARRASATE PRESS

Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSEn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Gabonetako sari berezia!

Segi erosten Ibai-Arteko dendetan eta irabaz ezazu

3.000 euroko sari erraldoia!



EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zenbat urte bete zituen, astelehenean, ARRASATE PRESSEK?
Zenbat zenbaki atera dira orain arte?



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA:

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Ganbatzar-buztan extra
Kiloa

9,98€ 1.161 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSE LUIS AZKARATE errendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose Luis!
Galderen erantzun zuzenak:
Argazkia Udalaizetik ateratakoa da. 1092 metro.

ARRASATEKO HISTORIA

1894an, elektrizitateari esker, Arrasateko kaleak argiztatuta

ION ANDER RAMOS

Gizakiak, sortu zenetik, beti izan du ardura bat: iluntasunetik aldentzea, eta edozein gauza egiteko argitasuna beharrezko izan du. Kristautasunaren esanetan, Jainkoak, lehenengo, argia egin zuen; hortaz, argi dago askok uste duten baino garrantzia handiagoa duela. Herri eta hiriak ondo argiztatuta egotea oso garrantzitsua da.

Sasoi baten, gauza garrantzitsu gehienak egun argiz egiten zituzten. Zerbait gauz egin behar bazen, ilargi beteko gauak izaten ziren aipose-nak, ilargiaren argiari esker egiten zena ondo ikus zitekeen-eta. Euskal Herriko ospakizun eta dantza asko ilargi beteko gauetan egiten zituzten, bai menditontorretan, baita baserrietako ate aurrean ere.

Arrasateko Udala herrian argiztapen publikoa jarri zuen Gipuzkoako lehen udaletako bat izan zen. Datuen arabera, 1777an izan zen hori. Orduko argiztapen sistema nahiko pobrea zen, baina garai hartarako aurrerapen handia izan zen. 1777an, olio erregeaiez

Arrasateko kaleak argiztatuta zituztenean, umeak argiak noiz piztu zain egoten ziren

funtzionatzen zuten lau farola jarri zituzten Arrasateko zona esanguratsuenetan, eta gutxi zirelakoan, beste hiru farola gehiago jarri zituzten. Arrasateko kaleak argitzeko Arrasateko Udalak 561 errealek gastatu zituen sasoi hartan.

Farola haiek udazkenean eta neguan bakarrik pizten zituzten, eta gero, Arrasateko udaletxeko biltegian gordetzen zituzten.

Argi elektrikoa iritsi arte, horrela argitzen zituzten Arrasateko kaleak. Elektrizitateak, ordea, gauza asko aldatu zituen. Instalazio berria 1894ko uztailaren lehen jarri zuten. Hamar bujiako lanpara bat jarri zuten, lehenengoz, Iturriotz kaleko 21. zenbakian. Eta Arrasateko umeak argiak noiz piztu zain egoten ziren.



Egun, Arrasate aspaldiko farolek eta farola berriek argiztatzen dute.

XABIER URZELAI

Txirritola

ARAMAIO / Eguena / 2002ko abenduaren 5a / 49. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Durangoko Azokarako Aramaioren ekarpena

UBANE MADERA

Aurten ere izango da Aramaioko ordezkari Durangoko Disko eta Liburu Azokan. Hain zuzen ere, herriko lau argitalpen eramango dituzte Bizkaia aldera.

Badihargugu elkarteak izango duen salmahaian ipiniko dituzte Aramaioko lanak.

Iaz eraman zituzten lan berak eramango dituzte aurten ere. Hori bai, Udaleko Euskara batzordeko zinegotzi Amaia Aspek adierazi digunez, Aramaioko euskararen gaineko liburua eramaten ere ahaleginduko dira, baina, seguruenik, ez da posible izango, denbora faltagatik.

LEKU BIKOITZA

Kontuak kontu, Aramaioko lau argitalpen izango dira Durangoko Azokan: *Aramaioko Joko eta Jolasak* liburua, Aramaioko Lore Jokoen gainekoa, Sagitario Lehia-jokotetan irabazle izan diren euskarazko lanak (hiru, guztira) eta *Tolerantzia* izeneko beste liburu bat. Aramaioko Udalak beste herri



Badiharduguren salmahaian izango dira Aramaioko produktuak.


GOIENKARIA

batzuetako udalekin argitaratutako liburua da azken hori.

Gainera, aurten, Aramaiok leku handiagoa izango du azokan. Izan ere, Badiharduguk iazkoaren leku bikoitza izango du.

Durangoko azoka atzo, egue-

na, zabaldu zuten, ikusleendako. Eta domekara arte egongo da zabalik. Eta, ohi bezala, milaka bisitari espero dituzte. Azokaren 37. aldia izango da: 271 postu, 44 argitaletxe komertzial eta 15 diskoetxe, besteak beste.



Euskal umorea kultura etxean

Euskaraz dibertitzeko manierak azalduko dituzte Kike Amonarriek eta Asisko Urmenetak, abenduaren 13an, kultura etxean, 18:30ean. Berbaldi modukoa egingo dute. Hizkuntza ardatz hartuta, oro har, euskarak dibertitzeko, barre egiteko, ligatzeko, iraintzeko eta trufatzeko dituen ahalmenak erakutsiko dituzte. Arrasaten ere izan dira, eta arrakasta itzela lortu dute.

HERRITARRENHITZA / Yago Goronaeta • Langilea

Sekulako gezur handia

2001eko irailaren 11n, mundua harri eta zur utzi zuen atentatu terrorista baten lekuko izan ginen, erakustaldi mediatiko zabalaren ikuskizun ikaragarriari esker. Argi dagoena da Hollywoodeko ikuskizun baten antza zuela (akzioa, sentimenduak barra-barra eta hausnarketa urria, bereziki gertuan tokatu zitzaionarendako). Eta eragin handia izan zuela; izan ere, bat-batean mundu guztiak zeukan gaiaren gaineko iritzi sakonen bat. Medioetan agertu ziren, batez ere, komikietako gaizkileen aurpegi berdintsua duen Bin Laden fundamentalistaren terrorismoa gaitzesten zutenak.

Hemen askok pentsatzen genuen sarraskia izan arren, goiz edo berandu gertatu beharko zela. Izan ere, AEBen nazioarteko politikak (askotan terrorismo hutsa dela esan dezakegu) etxean bertan ordaina emateko gertu dagoen etsai asko sorrarazi ditu.

Dena dela, gero eta gehiagok uste du irailaren 11koa barruko ekintzaren bat izan dela. Estatu amerikarra atentatu horien atzetik dagoela erakusten duten gero eta frogak gehiago agertu



"Ezagun da 1993ko atentatuaren atzean FBI dagoela"

(gaur egun, oraindik ere terrorista musulmanak daude inputatuta). Ezagun da aire-armadak ez zuela ezer egin bi dorreen eta Pentagonoaren aire-espazioan hegan zebiltzan

dira. Eta jakin badakigu Afganistan eta Irak AEBen petrolio interesendako oso gozoak direla, eta 2001eko ekaina ezker Afganistan bonbardatzeko esku-hartze militarrek aztertzen ari zirela. Ezagun da 1993ko World Trade Centerreko atentatuaren atzean FBI dagoela

hegazkinak euren ehiza hegazkinekin geldiarazteko, defentsa planak horrela erabakita izan arren; eta are gehiago atentatu-hegazkinen ordubetean baino gehiago irratia itzalita izan zutela kontuan hartuta.

Eta gauza asko uzten ditut bidean. Badirudi orain AEBek aspaldi lortu gura zutena lortzeko nazioarteko eskubide guztiak eta eskubide moral guztiak dituztela. Zein da emaitza? Gastu militarren handitzea, gerren betiketzea, askatasun murrizketa, prentsa askearen heriotza, dirua, boterea... Informazio gehiago gura baduzue, Interneten begiratu (oraindik aske da-eta).

LABUR

Eskaintza mordoa Aramaioko udal idazkari izateko

Berrogeita bost lagun aurkeztu dira Aramaioko Udaleko idazkari izateko. Eta dagoeneko horietatik sei aukeratu dituzte eta elkarrizketa egin diete. Edozelan ere, ez dira proba guztiak bukatu; izan ere, oraindik ez dakite Euskararen Laugarren Hizkuntza Eskakizunari dagokion azterketa egingo duten edo ez.

Kontuak kontu, prozesua aurrera doa, eta oraingo Aramaioko Udaleko idazkari Aitor Leturiondok adierazi digunez, Gabonak baino lehen izendatuko dute Aramaioko Udaleko idazkari berria.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	
20:30	20:45	21:05
21:10	21:25**	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:00
16:20	17:00	17:15
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute; autobusa erabili gura duenak, bezperan deitu beharko du honako zenbaki honetara: 629 54 59 23. Bi izartxo duten zerbitzuak auzoetara joateko dira.

OHARRAK

BERTSO TXAPELKETA

Manex Agirrek ez du asmatu oraingo honetan, eta ez du txapelik eskuratu Bagare Bertso Txapelketan. Hain zuzen ere, Iñigo Eizagirrek eskuratu du txapela. Orain, Manex Arabako Bertso Txapelketara begira ari da, eta "egurra emateko asmoarekin, gainera".

ARETO FUTBOLA

Bañerako kadeteek 11-3 irabazi zioten El Campillo taldeari. Gazte mailakoek, aldiz, 3-2 galdu zuten Izarra Gorriren kontra. Oraingo asteburuan, atsedean izango dute.

ZINEMA

Ice age filma emango dute, kultura etxean, 17:00etan.

EHIZA TXAPELKETA

Joan den asteburuan, Euskal Herriko Ehiza Txapelketa jokatu zuten. Tartean, Aitor Unamuno aramaioarrak ere parte hartu zuen, baina hark kontatu digunez, ehiztariek ez zuten txori bakar bat ere bota. Orain, Federazioak zer egin erabaki beharko du: edo lehiketa errepikatu edo irabazlea zozketaz erabaki.

ZERBITZUAK



Lur-jausiak eta bide mozteak Aramaion

Euriaren eraginez, Aramaion arazoak izan dira zenbait errepidetan lur-jausien ondorioz. Handiena Zabolatik Untzillara doan bidearen erdialdean gertatu zen, martitzen goizean. Horren ondorioz, errepidea moztu egin zuten, eta, udal langileek adierazi digutenez, egun batzuetan hala egongo da. Bestalde, Kurtzetarako igoeran, Atxandietako bihurtuganean erre bat moztuta egon zen, baina Errepide Saileko langileek arratsalderako zabaldu zuten. Bestelako lur-jausi txikiagoak ere izan ziren Kurtzetara bidean, baita Arrasatetik Aramaiora bidean ere.

KULTURA



Euskararen aldeko beste urrats bat

Aramaioko Vital Kutxaren bulegoari *Guk zerbitzua euskaraz* izeneko ziurtagiria eman diote. Bulegoko arduradun Joseba Nazabalek esan digunez, Aramaiokoa da euskaraz lan egiten duen Vital Kutxaren bulego bakarrenetarikoa, baina "azken boladan gauza dezente egiten ari dira euskara indartzeko". Horren adibide da lankideen arteko harremanak gero eta sarriago euskaraz izaten direla. Aramaioko bulegoa aurten sartu da Bai Euskarari egitasmoan. Edozelan ere, azken hamaika urteotan euskaraz egiten ahalegindu direla adierazi digu Joseba Nazabalek.

BOTEPRONTOAN/ Ana Muñoa · Ludotekako arduraduna

“Uste dut Aramaioko umeak jatorrak direla, irekiak; etorkizun ona izango dute”

Ana Muñoa aramaioarra arduratzen da, joan den urteaz geroztik, Aramaioko ludotekaz. Horrek esan gura du haren ardurapean daudela, egunero-egunero, 30-35 ume. Irakasle Ikasketak egindakoa da Ana, eta lanean oso gustura dabilela kontatu digu:

Noiz hasi zinen umeak zaintzen?

Ikasten nabilela, begirale lan egiten nuen oporretan, udal-kuetan. Gero, 1987an, lanean hasi nintzen, ordezkapenak egiten Gasteizko Udaleko haurtzaindegietan. Han ibili nintzen, 2000ra arte. Tartean, mojen ikastetxe baten ere ibili nintzen, 95-96. ikasturtean.

Eta han aspertu egin zinen ala?

Haurdun geratu nintzen, eta erabaki nuen eszedentzia eskatzea. Horrela nengoela, kultur etxeko kudeaketaz arduratzeko aukera ateratu zen Udalean. Behin, Olgarekin parkean elkartu nintzen, hori komentatu zidan eta animatu egin nintzen, herrian bertan zegoelako, umeekin lotuta zegoelako... Egia esan, iaz arte ez naiz sekula ibili ludotekan; beti ibili izan naiz ume txiki-ekin; hemengoak 3 urtetik 12 urterainokoak dira.



“Lan polita da, desberdina; ez du zerikusirik lehen egiten nuenarekin, baina gustura nabil”

Baina ondo?

Bai, oso ondo. Gustura. Lan polita da, desberdina; ez du zerikusirik lehen egiten nuenarekin, baina gustura nabil. **Umeak gustatzen zaizkizulako egin zenituen Irakasle Ikasketak eta lan hori hartu?** Bai, umeak gustatzen zaizkidalako egin nituen ikasketak horiek. **Aramaion zelako umeak dauden ikusita, zelako etorkizuna izango du herriak?** Nik uste dut umeak jatorrak direla, irekiak. Uste dut etorkizun ona izango dutela. **Zenbat ibiltzen dira ludotekan?** Ludotekara gura duten guztiak sar daitezke. Iaz, etortzen zirenen kontrola egiten nuen, baina gaitza da. Ume bat etortzen da, gero, liburutegira edo beste nonbaitera doa, gero, berriro dator... Edozelan ere, 35 bat ume etortzen dira. Jakina,

neguan udan baino askoz ere ume gehiago etortzen da. Eta auzoetatik ume gutxiago etortzen dira, gero ez dutelako etxera zelan bueltatu. **Horrenbeste umerekin, zela egiten diezu aurre burukominei? Pazientzia behar da. Egunak ere izaten dituzte umeek; barikuetan, adibidez, aztoratuago ibiltzen dira. Zer egiten dudan?** Batzuetan, bueltaka hasten direnean, nik laguntzen diet jolasean bat aukeratzen, edo eurenkin jolastean naiz, eskulanak ere egiten ditugu...

Kultura etxe berrian dena ondo dago ala igartzen duzue zerbaite faltan?

Bada, batez ere, neguan leku itxi bat izatea, jolasteko. Umeek mahai-jokoekin jolastea gustuko dute, baina beste jolas motaren batzuk ere nahi izaten dituzte: sokasaltoan egitea, bolotan egitea, pilotan... Sarreran badago lekua, baina ez da leku egokia umeendako; gainera, beheko aretoan yoga egoten da, eta ezin dira han ibili. Eguraldi ona egiten duenean kanpora irteten dira; neguan, 18:00etarako ilun dago... Bada, hori, negurako leku itxi bat. Lehengo ludotekarekin konparatuz gero, askoz hobeto gaude; lokala oso ondo dago.

“Lehengo lekuarekin konparatuz gero, askoz hobeto gaude orain; lokala oso ondo dago”

ERRETRATUZAHARRA

36ko gerran,
Burgosen,
kartzelan

Espainiako gerraren ondorio latzen artean, atxiloteta ugari ere izan ziren. Horren adibide da oraingo asteko argazkia.

Burgosko kartzelan dago aterata. Honakoak dira argazkikoak: beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Vicente Juldain, Roman Bidaburu, Eustasio Marcaide, Trini Azkoaga eta Felipe Letona. Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Pablo Bolinaga, Jose Maria Gallastegi, Barrutiabengoa, Lucio Urionabarrenetxea eta Joaquin Garmendia.

Kalkuluen arabera, 40.000 euskal preso izango ziren; horien artean, 3.000ri heriotza-zigorra ezarri zieten.

Arrasateko herritarren artean, 300 bat ziren preso. Lautik zazpi urtera bitartean eman zituzten kartzeletan, batez beste. Batzuk kontzentrazio-esparruetara eraman zituzten, eta handik lan batailoietara, eta beste batzuk Duesoko, Ondarretako, Puerto de Santa Mariako, Larrinagako, Deustuko Unibertsitateko, Eskolapioen komentuko kartzeletara eta beste



kartzela batzuetara eraman zituzten.

Hona hemen Dragoien batailoiko teniente Jose M. Arriaranen testigantza zati bat: "Burgosen, 1938ko maiatzaren 22an, San Cristobalgotorlekutik ihesaldia izan zen ondoren, askoz gogorragoa jarri zen diziplina, ez genuen bisitarik, ezin genuen paketerik hartu, eta hamabos-

tean behin posta kartatxo bat bakarrik idatz zitekeen, 12 lerroz goitik ukan ezin zitezakeena (...). Ia egunero fusilatzen zuten jendea, igandean izan ezik; egun horretan guztiok mezara joanarazten gintuzten, formazioan, eta besoa jasorik euren lelo frankistak oihukarazten zizkiguten (...). Gugandik aparte heriotza-zigorra zutenak

zeuden; espetxe barruan beste espetxe baten baleude bezala; han zeuden EAJko buruzagiak: Ajuriagerra, Rezola, Untzueta..."

Argazkia eta informazioa:
"Arrasate 1936, Belaunaldi etena"
Urtea: 1936-38

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Garagartzako
eliza eta
errepidea

Garagartzako lagun batek utzitako argazki ikusgarriak iritsi zaizkigu ARRASATE PRESSera, baina, tamalez, horrelako argazkiak azaleratzerakoan, askotan, kalitate handia galtzen dute. Teknologia aurrera egin du, baina lehen ere gaur egun besteko argazki ikusgarriak egiten zituzten, edo ikusgarriagoak. Arrasateko Garagartzako auzoko argazkiak dira hauek.



≈ 1965 Gaur egun, inguru horietan hazi diren zuhaixkak direla-eta, ezinezkoa da eliza lehen ikusten zen moduan ikustea.



2002 Aramaitotik datorren errepideak leku berean jarraitzen du, baina ordukoa baino askoz ere zabalagoa da.

EGUZKI GRAF →
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnua: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Edozein egoera menderatzen
lagunduko dizun auto betekin amets egiten duzu?
Vectra berria Orain, 16.500 €-tik aurrera.



Opel Vectra berria

Xasis berria Gidatzeko Sistema Interaktiboarekin (IDS), non direkzioak, frenoak eta esekidurak elkarrekin lan egiten duten errepidearen kontrol osoa lortzeko. Vectra guztiz berria, Ecotec balbula anitzeko motor gama berritzailearekin: 2.2 DTI / 125 ZP edo 3.2 V6 / 211 ZP edo potentzia handiko motorra duen GTS bertsioa.

- Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

*Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan Vectra Club 1.8 16 V modeloan. Hau guztia bane: garraioa, BEZa, matrikulazio zerga, Prever Plano eta berria ez den ibilgailuen akzioa. Hiri bukaera arteko promozioa. Iragarkian agertzen den modeloa ez da eskaintzen dena.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

